




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

2009

EMAITZEN TXOSTEN OROKORRA

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
2. MAILA**



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERTZETA DAIRA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



Egilea: Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)

Txostenaren egileak: Araceli Angulo Vargas
Alicia Sainz Martinez

Aholkularitza eta gainbegiratzea: Eduardo Ubieta Muñuzuri

AURKIBIDEA

1. Sarrera	6
A. Testuinguru teorikoa	6
• Ebaluazio diagnostikoa zer den	6
• Ebaluazio diagnostikoaren ikuspegi teorikoa	6
• Oinarrizko konpetentzia zer den	6
• Oinarrizko konpetentziaren ezaugarriak	7
B. Proben eta aplikazio-prozesuaren deskribapena	8
• Lege-esparrua	8
• Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak	8
• Aplikazio-prozesua	10
• Populazioaren deskribapena	11
• Probako hizkuntza	14
• Errendimendu-proben deskribapena	14
• Finkatutako gaitasun mailak	15
• Ikaslearen eta ikastetxearen galdera-sortak	16
C. Ikasleen indize sozio-ekonomikoa eta kulturala	17
2. DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak ebaluatutako oinarrizko konpetentzietan	19
2.A. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	20
• Emaitza orokorrak	21
• Emaitzak dimentsioen arabera	23
• Emaitza orokorrak geruzen arabera	26
• Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera	28
• Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera	29
• Emaitzak ikasleen sexuaren arabera	30
• Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera	31
• Emaitzak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna)	33
• Emaitzak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK) ..	34
• Konpetentziako emaitzetatik eratorritako ondorioak	38
2.B. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	40
• Emaitza orokorrak	41
• Emaitzak dimentsioen arabera	42
• Emaitza orokorrak geruzen arabera	44
• Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera	46
• Emaitzak ikasleen sexuaren arabera	47
• Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera	48
• Emaitzak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna)	49
• Emaitzak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK) ..	51
• Emaitzen konparazioa ISEK indizea kontrolatu ondoren	52
• Konpetentziako emaitzetatik eratorritako ondorioak	53

2.C. Matematikarako kompetentzia	55
• Emaizta orokorrak	55
• Emaizta orokorrak geruzen arabera	58
• Emaizak ikasleen sexuaren arabera	60
• Emaizak etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera	61
• Emaizak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna)	65
• Emaizak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)	66
• Emaizten konparazioa ISEK indizea kontrolatu ondoren	67
• Konpetentziako emaitzetatik eratorritako ondorioak	69
2.D. Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia	71
• Emaizta orokorrak	71
• Emaizta orokorrak geruzen arabera	74
• Emaizak ikasleen sexuaren arabera	76
• Emaizak etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera ..	77
• Emaizak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna)	81
• Emaizak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK) ..	82
• Emaizten konparazioa ISEK indizea kontrolatu ondoren	83
• Konpetentziako emaitzetatik eratorritako ondorioak	85
3. DBH 2ko emaitzak ISEK indizearen arabera eta geruzen ezaugarriak	87
• A eredu publikoa.....	89
• B eredu publiko	91
• D eredu publiko	93
• A erdu itunpekoa	95
• B erud itunpekoa.....	97
• D eredu itunpekoa	99

1. SARRERA

A. TESTUINGURU TEORIKOA

a) Ebaluazio diagnostikoa zer den

Hezkuntza arloan, ebaluazio diagnostiko deitzen zaie ikasleek eskolatzearen une jakin batean dituzten gaitasunak eta ahalmenak neurtzeko egiten diren ikerlanei. Horretarako, lurralde-eremu jakin batean proba objektiboak eta galdera-sortak egiten dira.¹

b) Ebaluazio diagnostikoaren ikuspegi teorikoa

UNESCOren “*Ezagutzaren gizarteetarantz*”² Munduko Txostenak adierazten duenez, egungo egoeran, “*aurrerakuntza teknikoen bizkortasunarekin gaitasunek gaurkotasuna berehala galtzen dute, eta ezagutza-arlo desberdinetan ikasteko mekanismo malguen lorpena sustatu behar da, ondo zehaztutako ezagutza-multzoa ezarri beharrean. Ikasten ikasteak gogoeta egiten, zalantza egiten ikastea esan nahi du, ahalik eta bizkorren egokitzen ikastea, baita norberaren ondare kulturalaren gogoeta egiten jakitea ere, adostasunak errespetatuz. Ezagutzaren gizarteek zutabe hauetan oinarritu behar dute*”.

Planteamendu horren helburua eguneroko bizitzarekin, eta modu autonomoan bizitzeko oso erabilgarriak diren trebeziak eta gaitasunen garapenarekin lotura handiagoa duten eskakizun berriei erantzutea da. Ikastetxean lantzen den irakasgaien edo irakasgaien arteko ezagutza berez helburutzat ulertu beharrean, gaitasunen zerbitzura dagoen tresna bikaintzat hartzen du.

Ikuspegi honek 90eko hamarkadan hasitako korronteari jarraitzen dio; orduan hasi ziren mundu osoan oinarritzko konpetentziekin lotutako azterketak, argitalpenak, kongresuak eta ekimen politikoak egiten. Lan-munduan sortu zen ikuspegia da.

c) Oinarrizko konpetentzia zer den.³

Ez dago kontzeptu horren onarpen unibertsalik; hala ere, konpetentzia garrantzitsutzat, beharrezkotzat edo oinarrizkotzat hartu ohi dira edonorentzat eta gizarte osoarentzat beharrezkoak eta onak direnak; ezinbesteko konpetentzia horiek “*gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko banako guztien ezinbesteko ezagupen, trebezia eta jarrera multzo*” gisa ulertzeko nolabaiteko adostasuna dago.

Esparru edo jarduera jakin batean gai izateak, ikuspegi honen arabera, ezagupen garrantzitsuak aktibatze edo erabiltzeko gai izatea esan nahi du esparru horren inguruko egoera eta arazo jakinei aurre egin ahal izateko. Hori guztia dela eta, ezagupenak berak baino, horiek praktikan jartzeko gaitasuna izatea esan nahi du, egoera jakinetan erabili ahal izateko.

¹ Eusko Jaurlaritzak. Ebaluazio diagnostikoa Euskadin. Garatzeko eta aplikatzeko proposamena. 2008ko martxoak

² Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (2005): UNESCOren Munduko Txostena 2005: Ezagutzaren gizarteetarantz. Op. Cit.

³ Eusko Jaurlaritzak. Op. Cit.

Bestela esanda, “*egiten jakitea*” da, hau da, askotariko egoera eta testuinguruetan erabili eta egoki daitekeen jakintza. Jakintza integratzailea da; izan ere, bere baitan ezagupenak, prozedurak eta jarrerak biltzen baititu.

Beraz, kompetentzia baten definizioan elementu hauek sartu ohi dira:

- Eragiketa kognitibo bat (batzuetan, gaitasun orokorrekin edo zeharkakoekin nahasten da).
- Objektu bat, eragiketa kognitiboa objektu horretan aplikatzeko (objektuari ezagutza esan ohi diogu).
- Helburu bat; objektuarekin zerbait egin behar da helburu jakin bat lortzeko.

Hori dela eta, “... *oinarrizko kompetentziek curriculumeko arloen eta irakasgaien arabera banaketa gainditu eta zeregin integratzaileak proposatu behar dituzte...*”

DeSeCo⁴ txostenaren arabera, kompetentzia bat ezinbestekotzat edo oinarrizkotzat hartu ahal izateko, biztanleria osoaentzat baliozkoa izan behar du, sexua, gizarte eta kultura maila eta familia edozein idelarik ere; gainera, hiru baldintza bete beharko lituzke:

- Derrigorrezko hezkuntzan edo prestakuntzan zehar garatu behar da.
- Transferigarria izan behar du; hau da, egoera eta ingurune askotan erabil daitekeena.
- Funtzio anitzekoa izan behar du, hots, askotariko helburuak lortzeko, mota desberdinetako problemak ebazteko eta mota desberdinetako lanak gauzatzeko erabil daitekeena.

d) Oinarrizko kompetenziaren ezaugarriak⁵

Kompetenziaren kontzeptua ulertzean, ezaugarri hauek hartu behar dira kontuan:

- Ez dira zuzenean ebaluagarriak; izan ere, kompetentzia jakin baten eskurapena ezin da banatu jakintza multzo baten eskurapenetik (ezagupenak, trebeziak, balioak, jarrerak...)
- Izaera dinamikoa eta osagai ideologiko handia dute.
- Curriculumean aintzat hartzen diren elementuak ez dituzte ordezkutzen, osatu baizik; eskola-curriculum osoari ikuspegi integratua eta integratzailea ematen diote.
- Ez dira gutxieneko ikasketatzat hartu behar.
- Ez dira elkarrekiko independenteak, elkarri lotuta baitaude. Haien elementu batzuk osagarriak dira. Kompetentzia bakoitza garatu eta erabili ahal izateko, ezinbestekoak dira gainerakoak ere... Kompetentzien arteko lotura estua argi ikus daiteke kompetentzia guztietan ageri diren elementu batzuen bidez: problemak ebaztea, jarrera kritikoa, sormeneko ekimena, arrisku ebaluazioarekin erabakiak hartzea, eta batez ere, informazioaren aukeraketa, trataera, erabilpena eta komunikazioa.

⁴ Gaitasunen definizioa eta aukeraketa. ELGAK prestatutakoa. 2003. Behin betiko bertsioa.

⁵ Eusko Jaurlaritza. Op. Cit.

B.PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

a) Lege-esparrua⁶

Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko Lege Organikoak (HLO) lege-esparrua 21., 29. eta 144. artikuluetan zehazten du. 21. eta 29. artikuluetan Lehen Hezkuntzan (bigarren zikloaren amaieran) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (bigarren mailaren amaieran) egin beharreko ebaluazio diagnostikoak zehazten ditu.

Era berean, legeak hau xedatzen du: *"hezkuntza administrazioei dagokie haien mende dauden ikastetxeek esku hartuko duten ebaluazio diagnostikoak garatzea eta kontrolatzea..."*

Horrekin lotuta, 2007ko urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegorako curriculumaz ezartzen duenak (EHAA 07-XI-13), 36. artikuluan mota honetako ebaluazioak biltzen ditu, eta garapenean kontuan izan beharreko hainbat betebeharrak aipatzen ditu.

2008ko abenduaren 2ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko ebaluazio diagnostikoaren garapena, antolaketa eta jarduera arautzen ditu; era berean, Hezkuntzako Sailburuordetzaren erabakiak ikastetxeetan proba horiek aplikatzeko argibideak ematen ditu.

Aipatutako lege-esparrutik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako betebeharrak dagozkiola ondoriozta daiteke:

- Ebaluazio diagnostikoaren prozesu osoa arautzea; horrekin batera doa proben emaitzak eta horietatik eratortzen diren gomendioak eta ekintza-planak zabaltzeko prozesua arautzea, eta emaitza horiek ikastetxeen arteko sailkapenak egiteko ez direla inolaz ere erabiliko bermatzea.
- Ebaluazio diagnostikoaren prozesua kontrolatzea, ikastetxeek lege zehaztutako oinarriko kompetentziak erreferentziaz hartuta egiten dituztela bermatuta.
- Ikastetxeek ebaluazioa gauzatu ahal izateko eredu eta laguntza egokiak eskaintzea, helburutzat ikastetxearen hobekuntza hartuta.
- Ebaluazio-prozesu osoan bildutako datu guztien isilpekotasuna eta babesa bermatzea.

b) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak

Ikastetxetik **kanpoko ebaluazioa** da, eta horren arduraria Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena da.

Luzetarako ebaluazioa da eta ikasle multzo berari buruzko informazioa eskaintzen du derrigorrezko hezkuntzako bi mailatan: Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan. Horri esker, irakasleek ikasle bakoitzari buruzko datuak bi momentu jakinetan ditzakete: Lehen Hezkuntzaren 2. zikloa amaitzean eta DBHko bigarren maila amaitzean.

Errolda mailako ebaluazioa da; bertan, funts publikoekin mantendutako Euskadiko ikastetxe guztietan aipatutako mailetan eskolatuta dauden ikasle guztiek parte hartzen dute.

⁶ Op. Cit.

Ebaluazio diagnostikoak ez du irakasleen ohiko ebaluazioa ordezkaten. Ebaluazio osagarria da. Horri esker, gainera, ikastetxeak eta irakasleek beste datu objektibo batzuk izan ditzakete eskuragarri. Ebaluazio horrek ez du loturarik ikastetxe bakoitzeko edukien bereiazko garapenarekin eta, ildo beretik, ikastetxe bakoitzak bere testuinguruaren arabera interpretatu behar ditu emaitzak, eta informazioa zertarako erabili nahi duen erabaki.

Ebaluazio diagnostikoaren helbururik behinena ikastetxeen eta ikasleen HOBEKUNTZAn esku hartzea da.

Helburu orokorrak:

- Eskolak bizitzarako eskaintzen duen prestakuntza maila eta ikasleek gizarte modernoko biztanle gisa duten betebeharra beren gain hartzeko zenbateraino dauden prestatuta baloratzea.
- Ikastetxeei irakas-jarduna hobetzen laguntzea.
- Administrazioari hezkuntza-politika bideratzeko informazio baliagarria ematea.

Helburu espezifikoak:

- Oinarrizko kompetentzien ebaluazioaren bidez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen hezkuntza-helburuen lorpen maila ezagutzea eta baloratzea.
- Faktoreak eta aldagaiak aztertzea, eta oinarrizko kompetentziak lorpenari eta garapenari eragiten dioten testuinguruko faktoreekin eta hezkuntza-prozesuekin lotzea
- Ikastetxeei informazio garrantzitsua eskaintzea, xede ezberdinetako neurriak eta programak bideratu ahal izateko (ikasleen arreta hobetzea, oinarrizko kompetentzien lorpena bermatzea, eta, hala badagokio, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak baloratzea).
- Ikastetxeetan gogoeta-prozesuak sustatzea, betiere, beren antolaketaren, funtzionamenduaren eta emaitzen hobekuntzan erantzukizunak baloratu eta onartu ahal izateko.
- Euskadiko hezkuntza-administrazioari informazio nahikoa, objektiboa eta garrantzitsua eskaintzea, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeari begira erabakiak hartu ahal izateko.
- Familiei semea/alabaren kompetentzien lorpen mailaren inguruko informazio garrantzitsua ematea, motibatze eta hobekuntza errazteko helburuarekin.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza-zerbitzuen lankidetzeta eta ahaleginen integrazioa bultzatzea Euskadiko ikasleen errendimendua hobetzeko.

Ikastetxeetako emaitzen informazioak hiru zehaztapen maila ditu: **ikastetxeari buruzko datu orokorrak** ebaluatutako bi irakasmaita horietako bakoitzean, irakasmaita bakoitzeko **ikastaldee** buruzko datuak eta ikastalde bakoitzeko ikasle guztien **banakako** datuak.

Familia bakoitzak, ikastetxearen bidez, semea/alabaren banakako txostena jasoko du.

c) Aplikazio-prozesua

➤ Proba pilotua

Probetako itemak konpetentzia bakoitzeko adituen talde batek prestatu zituen eta ISEI-IVEI arduratu zen koordinazio-lanez. Itemak, lehenik eta behin, esperimentalki probatu ziren aski adierazgarritzat jo zen ikasle-lagin batekin.

Proba pilotu hartan itemen kalitatea egiaztatu zen ikasleen errendimendu maila ezberdinak behar bezala neurtu ahal izateko; hau da, itemen zailtasun maila egiaztatu zen, item irekiak zuzentzeko irizpideen egokitasunarekin batera. Proba pilotuaren emaitzei esker, behin betiko proban sartuko ziren itemak hautatu ahal izan zituzten.

Jarraian ageri den taulan, 2008ko maiatzaren 5etik 16ra bitartean egin zen proba pilotuan DBH 2ko ikasleek izan zuten partaidetzari buruzko datuak ikus daitezke.

Proba pilotuko laginaren datuak		
DBH 2		
Ikastetxe kopurua	Ikastalde kopurua	Ikasle kopurua
24	36	819

➤ 2009ko ebaluazioko probarako jarraitutako prozedura

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako proba 2009ko apirilaren 27a eta maiatzaren 17a artean egin zen.

Probak eta galdera-sortak gauzatzeko lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten eta haien kalitate-kontrolaren arduraduna Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoa izan zen.

Ikastetxeetan probak bi egunez jarraian egin ziren. Proben iraupena egun bakoitzean hiru ordu ingurukoa izan zen guztira. Egun haietako bakoitzean, ikasleek bi errendimendu proba egin zituzten, bi konpetentzia ezberdinetakoak. Bi proben artean 20 minutuko atsedenaldia izan zuten. Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietako bi probak egun ezberdinetan egin zituzten. Horrez gain, egun horietako batean, ikasleek beren buruari, familiari eta eskolari buruzko galdera-sorta osatu behar izan zuten.

Ikasleen adina eta kontzentratzeko gaitasuna kontuan hartuta, konpetentzia bakoitzeko probak edo saioak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gehienez 60 minutu iraun beharko lukeela erabaki zen.

Oinarrizko konpetentziak	DBH 2	
Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Euskera	75 minutu*
	Gaztelania	75 min.*
Matematikarako konpetentzia	55 min.	
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia	55 min.	

(*) Denbora-tarte horretan, hizkuntza-konpetentziako hiru dimentsioetako probak egin ziren: irakurmena idazmena eta Entzumena.

Ikastetxe bateko irakasmila hauetako ikastalde guztiek probak egun, baldintza eta ordutegi beretan egin zituzten.

Ikastetxe barruan ebaluaziorako euskarri gisa, zuzendaritza taldeak, ebaluazio diagnostikoaren Koordinazio Batzordearen bidez, aplikazioa garatzen lagundu eta erraztu zuen.

d) Populazioaren deskribapena

Euskadiko ebaluazio diagnostikoan, funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan eskolatutako DBH 2ko ikasle guztiek parte hartu zuten (publikoak eta itunpekoak). Datuak hauek izan dira:

DBH 2	
Ikastetxe kopurua	335
Talde kopurua	839
Ikasle kopurua	17.550


➤ Ikastetxe kopurua

Ondoko taulan, ikastetxe kopurua ikus daiteke, ebaluazioan esku hartu zutenean indarrean zuten edo zituzten hizkuntza-ereduekin batera.

Ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak.					
DBH 2					
Eredu bakarra zuten ikastetxeak	%	2 eredu zituzten ikastetxeak	%	3 eredu zituzten ikastetxeak	%
231	69,9	91	27,2	13	3,9
Guztira 335					

DBHko ikastetxeen % 70ek (231 ikastetxe) hizkuntza-eredu bakarra zuen (A, B edo D); ikastetxeen % 27k (91 ikastetxe) bi eredutan eskaintzen zuten hezkuntza (A eta B, edo A eta D, edo B eta D) eta 13 ikastetxek (% 4k) zituzten hiru hizkuntza-ereduak indarrean (A, B eta D).

1. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikastetxeak eta eredu kopurua. Ehunekoak




➤ Talde kopurua

Jarraian DBHko 2. mailako ikastetxeetako ikastalde kopurua ageri da hizkuntza-ereduen arabera:

Talde kopurua hizkuntza-eredu bakoitzean					
DBH 2					
A eredia	%	B eredia	%	D eredia	%
143	17	233	27,8	463	55,2
Guztira 839					

DBHko 2. mailan, 143 talde zeuden A eredian (talde guztiak kontuan hartuta, % 17); B eredian, aldiz, 233 talde zeuden (maila horretan dauden talde guztien % 28) eta D eredia 463 taldek osatzen zuten (guztizkoaren % 55).

2. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikastaldeak hizkuntza-eredu bakoitzean. Ehunekoak



➤ Proban parte hartu zuten ikasleak

Jarraian, Euskadiko ikastetxe guztietako DBHko 2. mailan matrikulatuta dauden ikasleei buruzko datuak biltzen dituzten taulak ageri dira; bestela esanda, irakasmila horietan 2009. urteko ebaluazio diagnostikoko zentsua osatu zuten ikasleak dira.

Zutabeetan ageri diren datuak ulertu ahal izateko, alderdi hauek zehaztuko ditugu:

- Ikasleak, guztira: irakasmila bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua zehazten du. Datu horiek ikastetxeetako zuzendaritzek eman zituzten. (1. zutabea)
- Puntuazioan sartu ez diren ikasleak: probak egiteko baldintzak bete arren, ikasle horien emaitzak ez dira kontuan hartu datu orokorren azterketa egiteko. Horren arrazoiak hauek izan daitezke: ebaluatutako arloan NCE bat izatea; euskaratik salbuetsita izatea; probara joan arren maiz joaten ez direnen taldekoak izatea; urtebete baino gutxiagoko etorkina izateaz gain, probako hizkuntza ez ezagutzea; ikasketa-programa osagarri bat egiten aritzea. (2. zutabea)
- Aurkeztu ez diren ikasleak: proban sartuta dauden ikasleak dira; ebaluazioa egin behar zuten, baina gorabehera ezberdinak direla eta, probaren egunean ez ziren bertan izan. (3. zutabea)
- Proba egin zuten ikasleak: probak egin zituzten ikasleen behin betiko kopurua da. Haien puntuazioak kontuan hartu dira emaitza orokorretan (4. eta 5. zutabeak).

DBH 2	(1) Ikasleak guztira	(2) Puntuazioan sartu ez diren ikasleak	(3) Ez aurkeztuak	(4) Proba egin eta puntuazioan sartu diren ikasleak	(5) Proba egin zuten ikasleak (%)
Hizk-komunikaziorako komp. euskaraz	17.549	1.630	673	15.246	% 95,8
Hizk-komunikaziorako komp. gaztelaniaz		1.021	724	15.805	% 95,6
Matematikarako kompetentzia		1.003	674	15.872	% 95,9
Zientzia, teknol. eta osasun-kulturarako kompetentzia		933	701	15.915	% 95,8

DBHko 2. mailan, 2008-2009 ikasturtean guztira 17.550 ikasle zeuden matrikulatuta, baina lehen aipatu den moduan, ikasle guztiak ez zeuden puntuazioetan sartuta (taulako 4. zutabean kompetentzia bakoitzeko proba egin eta puntuazioan sartutako ikasleak ageri dira).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako 4 kompetentzietako proba guztiak 14.806 ikaslek egin zituzten. Dena den, kompetentzia bakoitzeko partaidetzaren datuak proba egin behar zuten ikasleen kopuruarekin konparatzen baditugu, ikasleen % 96k egin zuen proba.

Txosten honetan, 4 kompetentzia horietako bakoitzeko emaitzak aztertzeko kompetentzia bakoitzeko proba egin zuten ikasleen kopurua hartu dugu erreferentziazat (4. zutabea). Kompetentzia horretan puntuaziorik lortu ez duten ikasleak ez dira kontuan hartu.

Indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren aldagaia kalkulatzeko ikaslearen galdera-sortari erantzun dioten ikasleak erreferentziazat hartu dira..

➤ Adierazgarritasun urriko ikastetxeak

Ondoko taulan, errealitatea ondo erakusten ez duten emaitzak izan dituzten ikastetxeen kopurua ageri da. Izan ere, probak egin behar zituzten ikasleen % 20 baino gehiago ez zen agertu probetara eta horrela jasoko da beren banakako txostenetan.

Adierazgarritasun urriko ikastetxeak. DBH 2	
Euskarazko hizkuntza-komunikazio kompetentzia	10 ikastetxe
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	8 ikastetxe
Matematikarako kompetentzia	10 ikastetxe
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia	8 ikastetxe

e) Probako hizkuntza

Matematikarako konpetentziako eta zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziako probak euskaraz edo gaztelaniaz egin zitezkeen. Erabaki hori ikastetxeen esku utzi zuten; haiek erabaki zuten probetan erabili behar zuten hizkuntza etxeko hizkuntza izango zen ala kasuan kasuko konpetentziarekin lotura gehien duten arloetako irakas-hizkuntza.

Irakas-hizkuntza aukeratu zutenean, erabaki hori eredu bereko ikastalde guztietan aplikatu zen. Etxeko hizkuntza aukeratu zutenean, berriz, ikastaldeko ikasle bakoitzaren egoera banaka aztertu zen; hau da, ikastalde beraren baitan, ikasle batzuek probak euskaraz egin zituzten hura zelako etxeko hizkuntza, eta beste ikasle batzuek, aldiz, probak gaztelaniaz egin zituzten arrazoi hori bera dela eta.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako proban galderak eta erantzunak euskaraz egin ziren, eta gaztelaniazkoan, gaztelaniaz.

Ikaslearen galdera-sortak hizkuntzakoak ez diren konpetentzietako errendimendu-probetan erabilitako irizpide berekin egin ziren.

Ondoko taulan 2009ko ebaluazio diagnostikoko DBH 2ko ikastetxeek hizkuntza-ereduetako bakoitzean egindako aukera (etxeko hizkuntza edo irakas-hizkuntza) ikus daiteke.

Probako hizkuntzari buruzko datuak ereduaren arabera hizkuntzakoak ez diren konpetentzietan

Probetarako aukeratutako hizkuntza	Hizkuntza-ereduak eta probetarako aukeratutako hizkuntza		
	DBH 2		
	A ereduak	B ereduak	D ereduak
Etxeko hizkuntza	14	73	12
Irakas-hizkuntza	129	160	451
Guztira: 839 talde			

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.mailan, 99 taldek (% 11,8k) hizkuntzakoak ez diren konpetentzietako probak etxeko hizkuntzan egin zituen (euskaraz edo gaztelaniaz). Hiru hizkuntza-ereduetako 740 taldek, aldiz, irakas-hizkuntza aukeratu zuen (% 88,2k).

f) Errendimendu-proben deskribapena

2009. urteko ebaluazio diagnostikoaren helburua 175/2007 Dekretuan zehaztutako zortzi konpetentzietatik lau neurtzea zen. Urte hartako ebaluazioan lau konpetentzia hauek neurtu ziren:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia euskaraz.
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia gaztelaniaz.
- Matematikarako konpetentzia
- Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia.

Lehen hiru horiek ikasturte guztietan ebaluatuko dira; 2010. urtean, berriz, laugarren tokian ageri denaren orde, Gizarte eta herritar konpetentzia ebaluatuko da. Horren proba pilotua ikasle lagin batekin egin zen 2009ko ebaluazioa egiten zen bitartean.

Ebaluatutako lau konpetentzia horietako bakoitza neurtzeko erabili ziren itemen kopurua hau izan zen:

Konpetentziak	Dimentsioak	DBH 2 Item kopurua
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Entzumena	22 (A eredua) 23 (B eta D ereduak)
	Irakurmena eta idazmena	28
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Entzumena	23
	Irakurmena eta idazmena	24
Matematikarako konpetentzia		24
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia		41

Proba horietan lau motatako itemak zeuden, eskatzen zen erantzun motaren arabera:

- Erantzun itxiko itemak aukera anitzeko formatuarekin. Aukera batzuetatik bat hautatu behar da.
- Item erdi itxiak. Bi aukeren artean, bakar bat hautatu behar da.
- Erantzun laburreko itemak. Erantzun laburra eskatzen dute, adib. marrazki bat, matematikako eragiketa bat, hutsune bat betetzea eta abar.
- Item irekiak. Erantzunen aukera zabala onartzen dute eta zuzentzeko garaian subjektibotasuna saihesti ahal izateko, horretarako irizpide argiak eta gauzatze-mailak finkatzen dira.

Item gehienak aukera anitzekoak ziren bi irakasmailetan eta konpetentzia guztietan. Item erdi itxiak edo erantzun laburrekoak urriagoak ziren eta hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako probetan bakarrik zegoen erantzun luzeko item bat, idazlana alegia (60 hitzetakoa Lehen Hezkuntzan, eta 100 hitzetakoa DBHn).

Lehen bi motetako itemak aplikazio informatiko baten bidez zuzendu ziren. Aplikazioak erantzun zuzenari zegokion puntuazioa ematen zuen. Beste bi motetako itemak, aldiz, hartarako bereziki kontratatutako eta berriazko prestakuntza zuten langileek zuzendu zituzten. Kasu haietan, gainera, ISEI-IVEIk jarraipen-lana egin zuen zuzenketen artean egon zitezkeen desadostasun mailak ekiditeko edo ahalik eta gehien murrizteko.

g) Finkatutako gaitasun mailak

Emaitzak konpetentziarekin lotutako hiru gaitasun mailatan antolatuta aurkeztu dira: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Maila horietako bakoitza ikasleek proban proposatutako egoerei irtenbidea emateko behar diren ezagupenen, trebezien eta gaitasunen arabera definitu da, eta puntuazio-tarte batekin zehaztuta dago.

Hiru gaitasun maila finkatu dira:

- **Hasierako maila.** Askotariko ikasleak biltzen ditu: hezkuntza-zikloko trebeziak eta edukiak ikasten hasi direnak zein laguntza pixka batekin, erdi-mailari dagozkion eskakizunei aurre egiteko gai izan litezkeenak.

- **Erdi-mailak** ikasleen ehuneko handiak eskura ditzakeen trebeziak jasotzen ditu. Ebaluatutako konpetentzia bakoitzeko zailtasun ertaineko trebeziak eta edukiak jasotzen ditu.
- **Maila aurreratuak**, aldiz, probetan ebaluatutako trebezia eta eduki konplexuenak biltzen ditu. Maila honetan, duela gutxi ikasketa horiek menderatzeko prozesua sendotu duten ikasleak eta erabat finkatuta dauden beste batzuk egon daitezke.

Konpetentzia bakoitzaren baitan errendimendu mailak ezarri ahal izateko, aurretik helburu berarekin nazioarteko beste ebaluazio batzuetan erabilitako prozedura estandarizatu erabili da. Maila bakoitzerako *ebakidura-puntuak identifikatzeko* prozesu horretan probak prestatzen parte hartu zuten profesional guztiek parte hartu dute: ISEI-IVEIko teknikariak, Hezkuntza Ikuskaritzakoak, irakasmila ezberdinetako irakasleak eta prestakuntza aholkulariak. Horiez gain, prozesuan parte hartzera bereziki gonbidatutako beste irakasle batzuek ere parte hartu dute. Ebaluatutako konpetentzia edo dimentsio bakoitzerako bi ebakidura-puntu finkatu dira. Horiei esker, hiru lorpen edo errendimendu maila identifika daitezke: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratu (ikus ebaluatutako konpetentzia edota dimentsio bakoitzeko gaitasun mailen deskribapen-taulak).

➤ **Konpetentziak nola neurtu diren**

Emaitzei buruzko datuen helburua informazio osagarria eskaintzea da, ikastetxeentzat prestakuntza prozesuen inguruan erabakiak hartu ahal izateko eta funtzionamenduan hobekuntzak proposatzeko erabilgarria izan daitekeena. Bestela esanda, datuen azterketa bat dator ebaluazio eredu horrekin.

Emaitzak puntuazio-eskala baten bidez neurtzen dira. Puntuazio-eskalaren helburua ez da komunitatearen batezbestekoari esleitu zaion zenbakizko balioa adieraztea, erreferentzia-puntu bat finkatzea baizik. Hartara, ikasleen emaitzak, ikastaldeetakoak eta ikastetxeetakoak marka hori baino gorago edo beherago egongo dira.

2009ko ebaluazio diagnostikoko batezbesteko puntuazioa 250 puntukoa izan da (desbiderapen tipikoa, 50ekoa). 250 puntuko batezbesteko hori etapa eta konpetentzia bakoitzerako lehen aldiz finkatu da eta 2009ko proban parte hartu zuten ikasle guztien batezbesteko errendimendua adierazten du. Batezbesteko hori etorkizuneko ebaluazioetan konparaketak egin ahal izateko abiapuntua da, ebaluazio batetik bestera alda baitaiteke. Konpetentzia guztietarako batez bestekoa 250 puntutan finkatu izanak ez du esan nahi konpetentziak elkarren artean zuzenean aldera daitezkeenik.

h) Ikaslearen eta ikastetxearen galdera-sortak

Errendimendu probez gain, ikasleek beren familiari buruzko informazioa biltzen zuen galdera-sorta bat osatu zuten. Beste galdera batzuen helburua, aldiz, etxeko hizkuntza, jatorria eta abar ezagutzea zen. Era berean, ikasleari buruzko beste datu batzuk ere biltzen zituen: eskolaz kanpoko alderdiak, ikastetxearekin lotutakoak, ikastearekiko jarrera, gustuko irakasgaiak eta abar.

Ikerketa eta azterketa ugarik agerian utzi duenez, aldagai horietako askok eragina izaten du ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan.

Ikastetxeetako zuzendaritzek, era berean, berriazko galdera-sorta bat osatu zuten. Galdera-sorta haiek *on line* egin zituzten, eta horretarako ikastetxe bakoitzak bere pasahitza zuen.

Ikastetxearen galdera-sortan ikastetxeari buruzko hainbat datu jasotzen ziren: maila sozio-ekonomikoa, irakasleen egonkortasuna, plangintza eta antolaketa pedagogikoa, irakasleen asebetetze maila, teknologia berrien erabilera, irakasleen etengabeko prestakuntza eta baita ikastetxeko zuzendariari buruzko datu profesional batzuk ere.

C. IKASLEEN INDIZE SOZIO-EKONOMIKOA ETA KULTURALA

Ikasleek oinarrizko konpetentzien ikaskuntzan eta garapenean izaten dituzten lorpenei askotariko faktoreek, ikastetxe barrukoek zein kanpokoek, eragiten diete. Emaitzei eragiten dieten ikastetxetik kanpoko aldagaietako bat ikasleen egoera sozio-ekonomikoa da.

Indize horren eragina orain arteko ebaluazio eta ikerlan guztiek baieztatu dute. Oro har, emaitza akademikoa hobea izaten da ikasleen maila sozio-ekonomikoa eta kulturala igo ahala. Eta horregatik da garrantzitsua lortutako emaitzak aldagai horren eragina kontuan izanik baloratzea eta erkatzea.

Faktore horrek emaitzetan duen eragina mugatu ahal izateko, ebaluazioan parte hartzen duten ikastetxe guztiak talde sozio-ekonomiko ezberdinetan sailkatu dira, hezkuntza-etapa bakoitzean ebaluatutako ikasle-multzoa kontuan izanik.

ISEK indizea kalkulatzeko informazioa ikasleek galdera-sortan emandako erantzunetatik atera da. Indize horren barruan askotariko alderdiak sartzen dira, hala nola familiaren maila profesionala, familiaren ikasketa-mailarik altuena eta alde zuzenetik garrantzi handikotzat jo diren ondasun materialen eta kulturalen multzo bat edukitzea (etxean dauden liburuen kopurua, egunkaria eta aldizkari espezializatuak irakurtzea, ordenagailua eta Internetera sarbidea edukitzea).

Ikasle bakoitzaren datuetan oinarriturik, ikastetxe bakoitzeko ikasleen batezbestekoa kalkulatu da. Balio hori 0an zentratuta dago –Autonomia Erkidegoko batezbestekoa–, eta 1eko desbideratze tipikoa du. Populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain baxua, ertain altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.


Kontutan izan behar da maila horiek ez direla absolutuak, konparagarriak baizik hezkuntza etapa bakoitzean ebaluatutako ikasleen populazioaren barruan. Hori dela eta, baliteke ikastetxe bat, ebaluatutako bi irakasmilak baldin baditu, irakasmila bakoitzean ISEK maila ezberdin batean egotea, datuak ebaluatutako irakasmilako ikasleei buruzkoak dira, ez ikastetxe osoko ikasleei buruzkoak. Beraz, ikastetxeko ISEK indizea aipatzen denean, ebaluatutako ikastaldeetako ikasleen batezbesteko ISEK indizea ulertu behar da.

2009ko ebaluazio diagnostikoan DBHko 2. mailako ikasleen lau ISEK mailen balioak honako hauek dira.

DBH 2ko ikasleen ISEK indizearen balio-tarteak

ISEK maila	Txikiena	Handiena	Batezbesteko balioa
Baxua	-1,84	-0,46	-0,76
Ertain baxua	-0,46	-0,13	-0,29
Ertain altua	-0,13	0,21	0,02
Altua	0,21	1,26	0,55

3. grafikoa: ED09-DBH 2. Indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren balioak



Ondoko taulan DBHko ikastetxeetako ISEK indizearen batezbesteko balioa azaltzen da kontuan izan diren geruzetako bakoitzean.

Geruza	ISEK indizearen batezbesteko balioa	
A publikoa	-0,68	Baxua
B publikoa	-0,35	Ertain baxua
D publikoa	-0,12	Ertain altua
Itunpeko A	0,24	Altua
Itunpeko B	0,08	Ertain altua
Itunpeko D	0,16	Ertain altua

2. DBHko 2. MAILAKO IKASLEEN EMAITZAK EBALUATUTAKO OINARRIZKO KONPETENTZIETAN.

2.A. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.

Definizioa

Hizkuntza euskaraz erabiltzeko trebetasuna da, hots, kontzeptuak, pentsamenduak, sentipenak, gertakariak eta iritziak ahozko zein idatzizko diskurtsoen bidez adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna eta, baita ere, gizarte eta kultura testuinguru posible guztietan hizkuntzaren bidez elkarrengaitzekoa.

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bost dimentsiotan egituraturik dago, eta bost horietatik hurrengo hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena euskaraz**
Era askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai den baloratzeko, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituen, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituen.
- **Entzumena euskaraz**
Ahozko testuei buruzko galderen bidez ebaluatu da hurrengo honetarako kompetentzia neurtu delarik: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko
- **Idazmena euskaraz**
Euskarazko idazlan baten bidez emandako gaiaren egokitasuna eta garapena neurtu dira, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia.
Dimentsio hori baloratzeko, DBHko ikasleei 100 hitzetako idazlana eskatu zitzaien. 20 hitzetatik gorako idazlan guztiak zuzendu dira, honako alderdi hauek baloratu direlarik:
 - Gaiaren egokitasuna eta garapena
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari atxiki duen ala ez.
 - Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren progresioari atxiki duen ala ez (azalpenaren ordena, errepikapenak, koherentzia faltak...)
 - Eskatutako testuaren egiturari atxiki duen ala ez, eta testuaren atalak egoki bereizirik dauden ala ez.
 - Eskatutako testurako egokiak diren hizkuntza baliabideak eta bestelakoak erabiltzen dituen ala ez.
 - Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoen erabilpena...)
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia akats larriak eta puntuazio akatsak.

Ebaluatu ez diren dimentsioak hauek dira:

- Mintzamena
- Ahozko elkarrengaitza


- **Emitza orokorrak euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian**

EAEko DBH 2ko ikasleen batezbesteko emitza euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian 250 puntutan finkatu da. Ondoko taulan kompetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera. Kompetentzia horretako puntuazio orokorrean altuena 345 puntukoa izan da eta apalena 64 puntukoa.

Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	K	Txikiena	Handiena	Batezbestekoa	Desb. Tip.
Puntuazio orokorra	15.246	64	345	250	50

4. grafikoan ikasleen banaketa azaltzen da ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailetako bakoitzean.


4. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Datuak orokorki aztertzen baditugu, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 38k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 44 kompetentziako erdi-mailan dago, eta % 20 inguruk kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen % 62 erdi-mailan eta maila aurreratuan dago.

Hizkuntza-ereduen egiturak euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzetan eragin handia duenez, hizkuntza-eredu bakoitzeko emaitzak zein bere aldetik aztertzen dira emitza orokorrak eta ikasleen banaketa gaitasun mailletako bakoitzean egokiago baloratu ahal izateko.

5. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoak hizkuntza-eredu bakoitzean errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Aurreko grafikoa ikus daitekeen bezala, A ereduko ikasleen % 85ek ez du gainditzen kompetentziako hasierako maila, ehuneko hori B ereduan % 38ra eta D ereduan % 26ra jaisten delarik. A ereduko ikasleen % 2 bakarrik heltzen da maila aurreratura; B ereduan, berriz, % 16 eta D ereduan % 23,6 heltzen da kompetentziako maila aurreratura.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailetako bakoitzean –hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua– eta ebaluatutako dimentsio bakoitzean ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Taulan oinarriturik, ikastalde bakoitza zein egoeratan dagoen ondoriozta daiteke, eta, baita ere, maila bakoitzean zer egiteko gai den.

Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako gaitasun mailen deskribapena

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetako ikaslea erabilera esparru askotariko ahozko zein idatzizko testuen esanahi orokorra eta xedea antzemateko gai da, era argian adierazita ageri baldin badira. Testu errazetako lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu, era konplexuan adierazita ageri ez badira. Informazio zehatza eta esplizitua identifikatzeko gai da, eta, baita ere, testuko pasarte batetik inferentzia zuzenak egiteko edo ondorioak ateratzeko. Testuaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu errazak idazteko gai da, gutxieneko hitz kopurura heltzeko arazoak izan ditzakeen arren. Ideiak antolatzeko oso egitura sinpleak erabiltzen ditu, eta batzuetan testuaren xedea lortzeko ez dira egokiak. Erabiltzen duen erregistroa ez da oso egokia.</p>	<p>Maila honetako ikaslea askotariko erabilera esparruetan ahozko zein idatzizko testuetako pasarteak laburtzeko gai da, eta testuari izenburua jartzeko. Nolabaiteko zailtasuna duten testuetan lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu. Egin beharreko lanerako informazio garrantzitsua aurkitzen du eta testuaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da. Testuko pasarte batetik inferentzia zuzenak egiteko edo ondorioak ateratzeko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testuak idazteko gai da. emandako komunikazio-egoerara moldatzen da. Testu mota identifikatzen eta garatzen du. Ideiak argi eta koherentziaz adierazten ditu, eta testuaren xedea betetzen du. Testuaren kohesiorako egokiak diren hizkuntza baliabideak erabiltzen ditu gehienetan. Adierazpen maila eta lexikoa onargarriak dira; gramatika eta ortografia akatsak ez dira ugariak eta ez dute ulergarritasuna oztopatzen.</p>	<p>Maila honetako ikaslea erabilera esparru askotariko ahozko zein idatzizko testuak laburtzeko gai da, eta, baita ere, testuaren atalen arteko erlazioak aurkitzeko eta testuari izenburua jartzeko. Lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu edozein motatako testuetan. Aurretiaz agindutako lan bat egiteko informazio garrantzitsua, inplizitua zein esplizitua, aurkitzen du. Testuko informazioa eta ezagupen pertsonala erlazionatzen ditu. Informazioa eta iritzia bereizteko gai da, eta, baita ere, testuaren edukiaren aurrean jarrera argia erakusteko.</p> <p>Bestalde, ongi egituratutako testuak idazteko gai da, bai koherentziaren bai kohesioaren ikuspuntutik. Emandako testua zein motatakoa den identifikatzen eta egoki garatzen du. Erregistro egokia erabiltzen du komunikazio-egoerarako. Ideiak argi eta koherentziaz adierazten ditu, eta testuaren xedea betetzen du. Hizkuntza-baliabideak egoki eta jariatortasunez idazten du. Adierazpen maila altua da eta erabiltzen duen lexikoa, egokia.</p>


- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen arabera**

EAEko DBH 2ko ikasleen batezbesteko emaitza kompetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetan 250 puntutan finkatu da. Puntuaziorik altuenak Idazmenean lortu dira (349 altuena eta 108 apalena). Puntuaziorik baxuena (52 puntu) Entzumenean lortu da.

Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioak	K	Txikiena	Handiena	Batezbestekoa	Desb. Tip.
Entzumena	15.246	52	346	250	55
Irakurmena	15.246	72	344	250	53
Idazmena	15.246	108	349	250	50

Jarraian euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluatu diren hiru dimentsioen analisia eta ikasleen banaketa gaitasun mailen arabera grafikoki adierazten da.

6. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.




Entzumena da hasierako mailan (% 43,2) eta maila aurreratuan (% 21,6) ikasleen ehunekorik altuenak dituen dimentsioa, eta, beraz, emaitzen barreiadurarik handiena duena. Maila horietan ikasleen ehunekorik baxuenak, berriz, Idazmenean gertatu dira, ikasleen % 28,6 hasierako mailan eta % 13,6 maila aurreratuan.


Idazmena da emaitzarik onenak lortu dituen dimentsioa, erdi-mailan eta maila aurreratuan DBH 2ko ikasleen ehunekorik altuenak (% 71,5) bertan bildu baitira. Irakurmenean ikasleen % 62,2 heltzen da maila horietara, eta Entzumenean % 56,8.

Ondoko grafiko hauetan A, B eta D hizkuntza-ereduetako ikasleen banaketa bereizirik azaltzen da aztertutako hiru dimentsioetako errendimendu-mailetan.


7. grafikoa: ED09-DBH 2. A ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



8. grafikoa: ED09-DBH 2. B ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



9. grafikoa: ED09-DBH 2. D ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



Ikus daitekeenez, hasierako maila gainditzen ez duten A ereduko ikasleen ehunekoa Idazmenaren kasuan D ereduko baina hiru aldiz handiagoa da eta B ereduko baina bi aldiz handiagoa. Era berean, Entzumenean eta Irakurmenean ehunekoak B eta D ereduak baino apur bat altuagoak dira, ia bi aldiz altuagoak.

Konpetentziako maila aurreratua aztertzen badugu, maila horretan A ereduko ikasleen oso ehuneko apala dagoela ikusten da (ikasleen % 2ra ez da heltzen, Irakurmenean izan ezik, dimentsio horretan ikasleen % 4,2 baitago). B ereduan, berriz, maila horretara heltzen diren ikasleen ehunekoak % 10 eta % 19 bitartean daude, eta D ereduan % 18 eta % 27 bitartean.

Ondoko taulak ikaslea errendimendu-maila bakoitzean zer egiteko gai den deskribatzen du konpetentzia honetako hiru dimentsioetan.

Mailen deskribapena euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan

	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena	<p>Maila honetako ikasleak honako hau egiten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren zentzu orokorra ulertu. - Testuaren gaia ondorioztatu. - Testuaren ideia nagusiak identifikatu. - Testuaren helburua identifikatu. - Batzuetan, eskatutako informazio zehatza antzeman. - Informazioa eta iritzia bereizi. - Bere ezagupenen argitan, testuen edukiak interpretatu. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hau egiten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi. - Testuko igorlearen asmoa antzeman. - Mota desberdinetako testuen generoa antzeman. - Bere ideietatik abiatuta, testuaren informazioa interpretatu eta inferentziak egin. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hau egiten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bere ideietatik abiatuta, testuaren informazioa interpretatu, integratu eta inferentziak egin.
Irakurmena	<p>Maila honetako ikasleak honako hau egiten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren zentzu orokorra ulertu. - Testuaren ideia nagusiak identifikatu. - Testuen izenburua hautatu. - Berariazko informazioa edo informazio zehatza antzeman. - Bere ezagupenen argitan, testuen edukiak interpretatu. - Testuaren generoa antzeman. - Igorlearen asmoa identifikatu. - Bere adineko hiztegia ezagutu. - Testuaren helburua identifikatu. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hau egiten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi. - Bere ideietatik abiatuta, testuaren informazioa interpretatu eta inferentziak egin. - Testuaren pasarte nagusienak laburtu. - Testuaren egitura antzeman. - Informazioa eta iritzia bereizi. - Bere hezkuntza-mailako hiztegia ezagutu. - Testuko elementu esplizitu eta implizituetatik abiatuta, igorlearen asmoa antzeman. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hau egiten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak nolabait bereizi eta beraien arteko erlazioak egin. - Bere ideietatik abiatuta, testuaren informazioa interpretatu, integratu eta inferentziak egin. - Testuaren elementu ez-linguistiko eta linguistikoen esanahia integratu.

Idazmena	Maila honetako ikasleak honako hau egiten du: - Nahiz eta eskatutako datuak sartu, helburua ez du erabat lortzen: azalpen testuko informazioa ongi azaltzea. Gerta daiteke informazio urria jartzea. - Ideiak nolana antolatu eta errepikatu. - Hizkuntza-baliabide gutxi erabili. - Hiztegia urria erabili. - Akats ortografiko eta gramatikalak egin.	Maila honetako ikasleak honako hau egiten du: - Eskatutako datuak sartzen ditu eta testuaren helburua lortzen du: azalpen testu batean informazioa ongi azaltzea. - Ideiak eta datuak era logikoan antolatu; inkoherentzia larrik ezta errepikapen askorik gabe. - Hizkuntza-baliabideak behar den gehienetan erabili. - Kasu gehienetan hiztegi egokia erabili. - Akats ortografiko eta gramatikal gutxi egin, ulergarritasuna eragotzi gabe.	Maila honetako ikasleak honako hau egiten du: - Eskatutako datu guztiak sartzen ditu eta testuaren helburua erabat betetzen du: azalpen testu batean informazioa ongi azaltzea. - Ideiak eta datuak era logikoan antolatu, inkoherentziarik eta errepikapenik gabe. - Hizkuntza-baliabideak egoki erabili. - Hiztegi egokia eta aberatsa erabili. - Ortografia edo gramatika akats larrik gabe idatzi.
-----------------	--	---	---


- **Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua).**

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoan geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruza	K	Batezbestekoa	D.T.
A publikoa	432	166	1,89
B publikoa	806	240	1,68
D publikoa	5.460	263	0,56
Itunpeko A	1.715	194	1,14
Itunpeko B	3.520	254	0,74
Itunpeko D	3.313	268	0,69

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua (15.246) eta gaztelaniazko konpetentziako puntuazioan sartutakoena (15.804) ez datoz bat, zenbait ikasle euskaratik salbuetsita baitaude, eta, beraz, ez baitira konpetentzia honetako puntuazioan sartu.

10. grafikoa: ED09-DBH 2. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak geruzen arabera.



Ondoko taulan geruzen arteko aldean adierazgarritasuna azaltzen da.

Emaitzen adierazgarritasuna euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian. DBH 2.

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
A publikoa		BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
B publikoa	BAI		BAI	BAI	BAI	BAI
D publikoa	BAI	BAI		BAI	BAI	BAI
Itunpeko A	BAI	BAI	BAI		BAI	BAI
Itunpeko B	BAI	BAI	BAI	BAI		BAI
Itunpeko D	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	

Taula ezkerretik eskuinera irakurri behar da.

BAI: Alde adierazgarria % 95ean


= : ez dago alde adierazgarririk % 95ean

Batez bestekoen adierazgarritasun estatistikoa aztertzean, honako hau ikusten da:

- A eredu geruzetako emaitzak B ereduetoakoak baino nabarmenki baxuagoak dira, eta horiek, aldi berean, D ereduetoakoak baino baxuagoak.
- Geruza publikoetako emaitzak itunpeko geruzetakoak baino nabarmenki apalagoak dira hizkuntza-eredu guztietan.
- Emaitzen arteko aldeak gehienetan adierazgarriak dira, puntuazioen desbideratze tipikoa oso txikia baita.

Ondoko grafikoan finkatutako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak azaltzen dira geruza bakoitzean.

11. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.




Geruzak aztertu ondoren, zenbait alderdi azpimarratu beharko lirateke:

- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hasierako maila gainditzen ez duten ikasleen ehunekoak oso handiak dira A eredu publikoan (% 95 ia) eta itunpeko A ereduan (% 83).
- B eredu publikoko ikasleen erdiak eta itunpeko B ereduko ikasleen % 35,7k ez du gainditzen hasierako maila kompetentzia honetan.
- D eredu publikoaren geruzak eta itunpeko D ereduaren geruzak dituzte ikasleen ehunekorik txikienak hasierako mailan (% 28,4 D publikoan eta % 23 itunpekoan), eta ehunekorik handienak maila aurreratuan (% 22,5 D publikoan eta % 25,5 itunpekoan).

- **Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen arabera eta geruzen arabera.**

Jarraian euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetako emaitzak grafikoki adierazten dira geruzen arabera.


12. grafikoa: ED09-DBH 2. Emaitzak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan geruzen arabera.



Aurreko grafikoak erakusten du geruzetako emaitzetan, oro har, homogeneousutasun handia dagoela dimentsio guztietan.

Geruza bakoitzeko emaitzen azterketa konparagarria dimentsio ezberdinetan egiten bada, honako hau ikusten da:

13. grafikoa: ED09-DBH 2. Geruzetako emaitzak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.




Hiru dimentsioetan –Irakurmena, Entzumena eta Idazmena– geruzetako emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan, eta kompetentziako emaitza orokorretan adierazgarritasun maila berdina gertatzen da.

- **Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak hizkuntza-ereduen arabera.**

A eredu publikoaren geruzak eta itunpeko A ereduaren geruzak oso emaitza apalak lortu dituzte kompetentzia honetan, eta horrek agerian jartzen du hezkuntza-sarea, indize sozio-ekonomiko eta kulturalarekin loturik egoteagatik izan dezakeen garrantzia gora behera, kasu horretan ez dela aldagairik garrantzitsuen emaitzak azaltzeko.

Ondoko grafikoan emaitzak hizkuntza-ereduen arabera bereizirik azaltzen dira. A ereduko puntuazioak B eta D ereduetakoak baino nabarmenki apalagoak direla egiaztatzen da. Era berean, B ereduko puntuazioak D eredukoak baino nabarmenki apalagoak dira.


14. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian hizkuntza-ereduen arabera



Eredu bakoitzeko puntuazioen adierazgarritasuna grafikoki gezi hori batez adierazten da.

Horrez gain, eredu bakoitzaren errendimendua konpetentzia honetako hiru dimentsioetan konparatzen da, jarraian azaltzen den bezala.

15. grafikoa: ED09-DBH 2. A, B eta D ereduetao ikasleen errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan




Argi ikus daitekeenez, A ereduko emaitzak B eta D ereduetaoak baino apalagoak dira dimentsio guztietan. Aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

- **Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak sexuaren arabera**

Mutilek 242 puntu lortu dituzte eta neskek 259, 16. grafikoa ikus daitekeen bezala. Aldea estatistikoki adierazgarria da.

16. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen sexuaren arabera.




Puntuazio aldeak sexuaren arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian

	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarria
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	259	242	17	BAI

Ondoko grafikoan azaltzen den bezala, konpetentziako hasierako mailan mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa da, bi multzoen arteko aldea 15 puntutara heltzen delarik (nesken % 30,5 eta mutilen % 45). Gaitasun maila aurreratuan, berriz, DBHko 2. mailako mutilen ehunekoa 10 puntuz baxuagoa da neskena baino (mutilen % 13,8 eta nesken % 23,4).

17. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen sexuaren arabera



• Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

Ondoko taulak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia ebaluatzeko kontuan izan diren DBH 2ko ikasleen lagina erakusten du etxeko hizkuntzarekin batera. Irakasmaila horretan ikasleen % 80k baino gehiagok gaztelania du etxeko hizkuntza bezala. Ia % 16k euskara du etxeko hizkuntza bezala. Eta % 1,38k gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen du familian.


Puntuazioan sartu diren ikasleak eta etxeko hizkuntza euskarazko Hizkuntza-komunikazioan

	Euskara		Gaztelania		Beste hizkuntza bat	
	K	%	K	%	K	%
GUZTIRA: 15.246	2.401	15,74	12.527	82,16	211	1,38

* Ebaluazioan parte hartu duten kasleen % 0,7 ez da taulan haintzat hartu, galdera-sortan "Ez daki/ez du erantzun" erantzun dutelako.


Emaitzak aztertzerakoan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek konpetentzia honetan 275 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania dutenek 246 puntu lortu dituzte. Etxeko hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenek 204 lortu dituzte. Aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

18. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen etxeko hizkuntza eta errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Jarraian ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen da etxeko hizkuntzaren arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailetan.

19. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian etxeko hizkuntzaren arabera.



Etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleen ehunekorik altuenak hasierako mailan biltzen dira. Maila aurreratuko ehunekorik altuena (% 31,2) etxeko hizkuntza euskara duten ikasleei dagokie. Etxeko hizkuntza gaztelania denean, ehunekoa gutxi gora behera erdira murrizten da, euskarazko kompetentziako maila horretan % 16,2 bakarrik baitago. Etxeko hizkuntza euskara edo gaztelania ez den kasuetan ikasleen % 7,6 heltzen da maila aurreratura.

- **Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna).**


DBHko 2. mailan adin egokiko ikasletzat 1995. urtean jaiotakoa hartzen da. 1994an jaio zirenek ustez irakasmaila bat errepikatu dute, baina baliteke ikasle horiek urtebete beranduago eskolatuak izatea. Era berean, 1993an jaio zirenek ustez bi irakasmaila errepikatu dituzte, baina eskolatzeko berantiarreko ikasleak izan baitaitezke.

	K	Batezbestekoa	D.T.
Jaioturtea 1993	658	205	1,91
Jaioturtea 1994	2.041	214	1,06
jaioturtea 1995	12.502	258	0,37

* Taulan ez dira sartu urte horiek baino lehenago eta beranduago jaio ziren 45 ikasle; kopurua (K) oso txikia zenez, ez zen adierazgarria.

Ondoko grafikoa ikasleen errendimendua azaltzen da jaioturtearen arabera.


20. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen jaioturtea eta errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



Emaitzen arteko ezberdintasunak adierazgarriak dira, hau da, 1994an jaiotako ikasleek –ustez irakasmaila bat errepikatu dutenek– adin egokikoek baino emaitza apalagoak lortu dituzte. Bi urte lehenago, 1993an, jaio zirenek –bi irakasmailako atzerapena duten ikasleek– emaitza nabarmenki apalagoak lortu dituzte irakasmaila bateko atzerapena dutenek eta adin egokikoek baino.

Jarraian ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen da gaitasun mailetan jaioturtearen arabera.

20. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen jaioturtea eta errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




Konpetentziako hasierako mailan irakasmila bat edo bi errepikatu duten ikasleen ehunekoa nabarmenki handiagoa da (irakasmila bateko atzerapena dutenen % 69 eta bi irakasmilako atzerapena dutenen % 75). Multzo horietako ikasleen ehunekoa ez da % 3ra heltzen maila aurreratuan.

- **Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren mailen arabera.**


Ondoko grafikoan konpetentzia honetan lortu den batezbesteko errendimendua azaltzen da ISEK lau mailen arabera.



22. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ISEK mailen arabera.



Ondoko grafikoek hizkuntza-eredu bakoitzean lortutako emaitzak adierazten dituzte ISEK mailen arabera. Emaitzen adierazgarritasuna gezi hori batez adierazten da.

23. grafikoa: ED09-DBH 2. A ereduko errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ISEK mailen arabera






Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean, batez ere ISEK maila baxuan, ertain baxuan eta ertain altuan. Kasu horietan ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da. Aldeak adierazgarriak dira. Aurreko grafikoetan ikus daitekeen bezala, alderdi hori hizkuntza-eredu bakoitzean bereizirik aztertzen denean harreman hori betetzen da.

Hala eta guztiz ere, datu orokorrak hizkuntza-eredua kontuan izan gabe aztertzen direnean, lehen grafikoan erakusten den bezala, harreman hori galdu egiten da ISEK maila altuaren eta ertain altuaren artean, puntuazioak oso antzerakoak diren arren ISEK maila ertain altuko ikasleek errendimendu nabarmenki hobea baitute euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.

Arrazoiak, kasu horretan, geruzak ISEK maila horietan duen eragina dela esan liteke. Hau da, ISEK maila altua agian itunpeko A ereduaren geruzako ikasleek osatua izan daiteke, eta euskarazko hizkuntza-komunikazioko puntuaziorik apalenak geruza horretan lortu dira.

Alderdi hori sakonkiago aztertu ahal izateko, ondoko grafikoan ISEK maila bakoitzaren osara azaltzen da, geruza bakoitzeko ikasleen arabera.

26. grafikoa: ED09-DBH 2. ISEK maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa geruzen arabera.




ISEK maila altuaren % 20,5 itunpeko A ereduaren geruzako ikasleek osatzen dute, eta D publiko eta itunpeko D geruzetako ikasleek batera % 47 osatzen dute. ISEK maila ertain altuaren % 5,8 A publiko eta itunpeko A geruzetako ikasleek osatzen dute, eta % 70,4 D publiko eta itunpeko D geruzetako ikasleek osatzen dute.

Ehuneko horien argitan azal daiteke itunpeko A ereduaren geruzaren eragina (% 20,5) kompetentzia honetako emaitzetan: ISEK maila altuan lortu diren emaitzak maila ertain altuan lortutakoak baino nabarmenki apalagoak dira. Gogoratu beharrekoa da A publiko eta itunpeko A geruzek, hots, A ereduak, lortu dituztela euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako puntuaziorik apalenak.

27. grafikoak ikasleak geruzetan nola banatzen diren azaltzen du ISEK mailaren arabera.


27. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa geruza bakoitzean ISEK mailen arabera.



ISEK maila altuko ikasleen ehunekorik handiena (ia % 60) itunpeko A geruzak duela egiaztatzen da. Erraz ondoriozta daiteke itunpeko A geruzak lortu dituen emaitza nabarmenki apalagoak oso faktore garrantzitsua dela zergatik ISEK maila altuko emaitzak maila ertain altukoak baino nabarmenki baxuagoak diren azaltzeko.

Jarraian ikasleen banaketa grafikoki adierazten da euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hiru mailetan ISEK lau tarteen arabera.

28. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailen arabera



Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako erdi-maila eta maila aurreratua aztertzen badira, ISEK maila altuetan ikasleen % 70 inguru biltzen dela ikusten da (% 66,6 maila altuan eta % 68,8 maila ertain altuan). ISEK maila baxuan ikasleen erdia baino gutxiago (% 42,7) heltzen da erdi-mailara eta maila aurreratura.

Aitzitik, ISEK maila baxuak eta ertain baxuak biltzen dute ikasleen ehunekorik altuena kompetentziako hasierako mailan (% 57,3 ISEK maila baxuan eta % 39 maila ertain baxuan).

EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZETATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

1. Gaitasun mailak

- EAEko DBH 2ko ikasleen % 38k euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen ditu.
- Ikasleen % 44 konpetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 20k konpetentziako maila aurreraturako definitu diren zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.
- Ikasleen % 62 euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan dago.

2. Emaitzak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan.

- Entzumenak ikasleen ehunekorik handienak hasierako mailan (% 43,2) eta maila aurreratuan (% 21,6) dituela egiaztatzen da. Idazmenak, berriz, ikasleen ehunekorik txikienak biltzen ditu maila horietan, % 28,6 hasierako mailan eta % 13,6 maila aurreratuan.
- Idazmena da emaitzarik onenak lortu dituen dimentsioa da, erdi-mailan eta maila aurreratuan ikasleen ehunekorik handienak biltzen baititu (% 71,5).
- Irakurmenean ikasleen % 62,2 heltzen da maila horietara eta Entzumenean, % 56,8.

3. Analisia geruzen arabera.

Emaitza orokorrak

- Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian A publiko eta itunpeko A geruzetako emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmenki baxuagoak dira. Itunpeko A eta A publiko geruzen arteko aldeak ere adierazgarriak dira.
- Itunpeko D eta D publiko geruzetako emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmenki altuagoak dira. Era berean, Itunpeko D eta D publiko geruzen arteko aldeak ere adierazgarriak dira.
- Hiru dimentsioetan (Irakurmenean, Entzumenen eta Idazmenen) geruzetako emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira, konpetentzia orokorreko emaitzen arteko adierazgarritasun berdinarekin.

Ikasleen banaketa geruzen arabera

- A publiko eta itunpeko A geruzetako ikasleen ehuneko handi batek (ia % 95 eta % 83, hurrenez hurren) ez du hasierako maila gainditzen euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.
- B publiko geruzetako ikasleen erdiak eta itunpeko B geruzetako % 35,7k ez du hasierako maila gainditzen konpetentzia honetan.
- D publiko eta itunpeko D geruzetako gertatzen dira ikasleen ehunekorik txikienak hasierako mailan (% 28,4 D publikoan eta % 23 itunpeko D geruzan), eta ehunekorik handienak maila aurreratuan (% 22,5 D publikoan eta % 25,5 itunpeko D geruzan).

4. Emaitzak ikasleen sexuaren arabera.

- Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian neskek mutilek baino emaitza nabarmenki hobekien lortu dituzte.
- Konpetentziako hasierako mailan mutilen ehunekoa nesken baino handiagoa da, bi multzoen arteko aldea 15 puntukoa izatera heltzen delarik (nesken % 30,5 eta mutilen % 45). Maila aurreratuan mutilen ehunekoa nesken baino 10 puntu txikiagoa da (mutilen % 13,8 eta nesken % 23,4).

5. Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera.

- Etxeko hizkuntzaren analisiak adierazten du familia euskalduneko ikasleek 275 lortu dituztela konpetentzia honetan, eta familian gaztelaniaz hitz egiten dutenek 246 puntu. Familian euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenek 204 puntu lortu dituzte. Ezberdintasun horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

6. Emaitzak ikasleen jaioturtearen arabera.

- Jaioturtearen arabera gertatzen diren aldeak adierazgarriak dira: adin egokiko ikasleek, hots, 1995ean jaiotakoek, emaitza nabarmenki altuagoak lortu dituzte 1994an eta 1993an jaiotakoek (irakasmila bat edo bi errepikatu dutenek) baino.
- Konpetentziako hasierako mailan 1994an eta 1993an jaiotako ikasleen ehuneko nabarmenki handiagoa biltzen da (irakasmila bateko atzerapena dutenen % 69 eta bi irakasmilako atzerapena dutenen % 75). Multzo horietako ikasleen % 3 baino gutxiago heltzen da maila aurreratura.

7. Emaitzak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)).

- Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan ISEK maila altuetako ikasleen % 70 inguru biltzen da (ISEK maila altukoaren % 66,6 eta maila ertain altukoaren % 68,8).
- ISEK maila baxuko ikasleen erdia baino gutxiago (% 42,7) heltzen da konpetentziako erdi-mailara eta maila aurreratura.
- ISEK maila baxuak eta ertain baxuak biltzen dituzte ikasleen ehunekorik handienak konpetentziako hasierako mailan (ISEK maila baxukoaren % 57,3 eta maila ertain baxukoaren % 39).

8. ISEK indizeak geruza bakoitzean duen eraginaren analisia.

- Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian harreman adierazgarria gertatzen da ISEK indizearen eta errendimenduaren artean, batez ere ISEK maila baxuan, ertain baxuan eta ertain altuan. Kasu horietan, ISEK indizea zenbat eta altuagoa izan, orduan eta errendimendu hobea izaten da. Aldeak adierazgarriak dira.
- ISEK maila altuaren eta maila ertain altuaren arteko harreman adierazgarria galdu egiten da, ISEK maila ertain altuko ikasleek errendimendu nabarmenki hobea izan baitute euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian. Horren arrazoia honako hau izan daiteke: itunpeko A geruzako ikasleen % 20,5 ISEK maila altukoa da, baina puntuazio nabarmenki apalagoak lortu ditu konpetentzia honetan.
- Itunpeko A geruzak du ISEK maila altuko ikasleen ehunekorik handiena (% 60 ia). Hartara, itunpeko A geruzak konpetentzia honetan lortu dituen emaitza nabarmenki apalagoak giltzarria izan litezke zergatik ISEK maila altuko ikasleek maila ertain altukoek baino emaitza apalagoak lortu dituzten azaltzeko.

2.B. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.

Definizioa

Hizkuntza gaztelaniaz erabiltzeko trebetasuna da, hots, kontzeptuak, pentsamenduak, sentipenak, gertakariak eta iritziak ahozko zein idatzizko diskurtsoen bidez adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna eta, baita ere, gizarte eta kultura testuinguru posible guztietan hizkuntzaren bidez.

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bost dimentsiotan egituraturik dago (entzumena, irakurmena, mintzamena, idazmena eta ahozko elkarreragina), eta bost horietatik honako hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena gaztelaniaz**
Era askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai den baloratzeko, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituen, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituen.
- **Entzumena gaztelaniaz**
Ahozko testuei buruzko galderen bidez ebaluatu da hurrengo honetarako kompetentzia neurtu delarik: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko.
- **Idazmena gaztelaniaz**
Gaztelaniazko idazlan baten bidez emandako gaiaren egokitasuna eta garapena neurtu dira, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia.
Dimentsio hori baloratzeko, DBHko ikasleei 100 hitzetako idazlana eskatu zitzairen. 20 hitzetatik gorako idazlan guztiak zuzendu dira, honako alderdi hauek baloratu direlarik:
 - Gaiaren egokitasuna eta garapena
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari atxiki duen ala ez.
 - Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren progresioari atxiki duen ala ez (azalpenaren ordena, errepikapenak, koherentzia faltak...)
 - Eskatutako testuaren egiturari atxiki duen ala ez, eta testuaren atalak egoki bereizirik dauden ala ez.
 - Eskatutako testurako egokiak diren hizkuntza baliabideak eta bestelakoak erabiltzen dituen ala ez.
 - Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoen erabilpena...)
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia akats larriak eta puntuazio akatsak.

Ebaluatu ez diren dimentsioak hauek dira:

- Mintzamena
- Ahozko elkarreragina


- Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitza orokorrak**

EAEko DBH 2ko ikasleen batezbesteko emaitza gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian 250 puntutan finkatu da. Ondoko taulan konpetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera. Konpetentziako puntuaziorik altuena 385 puntukoa izan da eta apalena 45 puntukoa.

Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	K	Txikiena	Handiena	Batezbestekoa	Desb. Tip.
Puntuazio orokorra	15.804	45	385	250	50

Ondoko grafikoan ikasleen banaketa azaltzen da ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailetako bakoitzean.

29. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian



Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen % 84 inguru erdi-mailan eta maila aurreratuan dago. EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 16k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen ditu. Ikasleen % 55 konpetentziako erdi-mailan dago, eta % 29 inguruk konpetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menperatzen ditu.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailetako bakoitzean –hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua– ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Taulan oinarriturik, ikastalde bakoitza zein egoeratan dagoen ondoriozta daiteke, eta, baita ere, maila bakoitzean zer egiteko gai den.

Gaitasun mailen deskribapena gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Diskurtso-trebetasunei dagokienez, maila honetako ikasleak bere adinari dagozkion komunikazio-zereginak modu osatugabeen gauzatzen ditu edo egoki gauzatzeko laguntza behar izaten du. Kasu gehienetan erabilera-esparru ezberdinetako ahozko zein idatzizko ohiko testuen esanahi orokorra edo xedea antzemateko gai da. Konplexutasun gutxiko testuetan lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu. Informazio esplizitua antzematen du, eta testuko pasarte baten edukiari buruzko inferentzia zuzenen bat egiten du. Testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu errazak idazteko gai da, emandako komunikazio-egoerarako hizkuntza-erregistro egokia erabiltzeko arazoak izaten dituen arren. Mota ezberdinetako testuen ezaugarriren bat erabiltzen du, baina modu partzialean edo desegokian komunikazio-helburua betetzeko. Gabeziak erakusten ditu ideien antolamenduan eta garapenean eta baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideen erabilera mugatua da, eta lexiko, gramatika eta ortografia akats batzuk egiten ditu.</p>	<p>Diskurtso-trebetasunei dagokienez, maila honetako ikasleak bere adinari dagozkion komunikazio-zereginak modu osatugabeen gauzatzen ditu edo egoki gauzatzeko laguntza behar izaten du. Kasu gehienetan erabilera-esparru ezberdinetako ahozko zein idatzizko ohiko testuen esanahi orokorra edo xedea antzemateko gai da. Konplexutasun gutxiko testuetan lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu. Informazio esplizitua antzematen du, eta testuko pasarte baten edukiari buruzko inferentzia zuzenen bat egiten du. Testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu errazak idazteko gai da, emandako komunikazio-egoerarako hizkuntza-erregistro egokia erabiltzeko arazoak izaten dituen arren. Mota ezberdinetako testuen ezaugarriren bat erabiltzen du, baina modu partzialean edo desegokian komunikazio-helburua betetzeko. Gabeziak erakusten ditu ideien antolamenduan eta garapenean eta baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideen erabilera mugatua da, eta lexiko, gramatika eta ortografia akats batzuk egiten ditu.</p>	<p>Diskurtso-trebetasunei dagokienez, maila honetako ikasleak bere adinari dagozkion komunikazio-zereginak egokitasun handiz egiten ditu. Erdi-mailan deskribatutako zereginen gain, erabilera-esparru ezberdinetako ahozko zein idatzizko ez-ohiko testuetako ideien arteko erlaziozatzeko gai da. Testuko ideia ezberdinak laburtzen eta erlaziozatzeko egiten ditu. Testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko loturak egiten ditu.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu ongi egituratuak idazteko gai da, mota ezberdinetako testuen ezaugarriei egokiturik. Ideiak koherentziaz aurkezten eta garatzen ditu testuaren xedea betetzeko. Hizkuntza-baliabideen erabilera maila ona erakusten du. Jariakortasunez eta ortografiaren eta gramatikaren aldetiko zuzentasunez adierazteko gai da.</p>


• **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen arabera.**

Ondoko taulan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian kontuan izan diren ikasleen kopurua ikus daiteke, kompetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetako (Entzumena, Irakurmena eta Idazmena) gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioak	K	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. Tip.
Entzumena	15.804	30	384	250	57
Irakurmena	15.804	55	398	250	54
Idazmena	15.804	58	379	250	50

Ondoko grafikoak ikasleen banaketa azaltzen du gaitasun mailetako bakoitzean eta ebaluatu diren hiru dimentsioetan.

30. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluatu diren hiru dimentsioetan gaitasun maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa honako hau da: portaerarik onena izan duen dimentsioa Entzumena izan da, hasierako mailan ikasleen ehuneko txikia baitu, eta maila aurreratuan ehunekorik handiena. Idazmenak ikasleen % 23 biltzen du hasierako mailan eta ikasleen ehunekorik txikiena (% 12) maila aurreratuan, eta beraz, portaerarik txarrena izan duen dimentsioa da. Irakurmena da kompetentziako emaitza orokorretara gehien hurbildu den dimentsioa.

Ondoko taulak ikaslea ebaluazio honetan definitu diren gaitasun maila bakoitzean zer egiteko gai den deskribatzen du aipatutako hiru dimentsioetan. Taulan oinarriturik, ikastalde bakoitza zein egoeratan dagoen ondoriozta daiteke, eta, baita ere, maila bakoitzean zer egiteko gai den.

Gaitasun mailen deskribapena gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan

	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena	<p>Maila honetako ikaslea hurrengo honetarako gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Testuan informazio esplizitua aurkitu (datuak). Testuaren xedea identifikatu. Testuaren edukiari buruzko inferentzia zuzenak egin. Testuko ideia nagusia antzeman. Testuko ideia orokorra laburtu. Testuaren edukiari buruzko zeharkako inferentzia sinpleak egin. 	<p>Maila honetako ikaslea hurrengo honetarako gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Informazio esplizitua identifikatu (ideiak). Testurako izenburu egokia aukeratu Testuaren edukiari buruzko zeharkako inferentzia sinpleak egin. Mota bereko informazioen artean informazio zehatza antzeman (datuak). 	<p>Maila honetako ikaslea hurrengo honetarako gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Testuaren pasarte ezberdinen edukia interpretatu. Bere irakasmilan ohikoa ez den hiztegia antzeman. Testuaren edukia eta ezagupen pertsonala erlazionatu
Irakurmena	<p>Maila honetako ikaslea hurrengo honetarako gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Bere irakasmilan maiz erabiltzen den hiztegia erabili. Testuaren gaia antzeman. Testuaren xedea identifikatu. Idea nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi. Puntuazio ikurren esanahia antzeman. Testuaren hartzaila identifikatu. 	<p>Maila honetako ikaslea hurrengo honetarako gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Informazioa eta iritzia bereizi. Nolabaiteko anbigutasuna duten esaldiak egoki interpretatu. Informazio inplizitua identifikatu eta interpretatu. 	<p>Maila honetako ikaslea hurrengo honetarako gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Testuaren edukia ezagupen pertsonalarekin erlazionatu. Testuko ideiak laburtu eta erlazionatu. Testuan informazio anbiguo edo osatu gabea ondorioztatu eta interpretatu.

	<ul style="list-style-type: none"> Informazio esplizitua aurkitu (datuak eta ideiak). Testuaren pasarteen esanahia ondorioztatu 		
Idazmena	<p>Maila honetako ikasleak idazten dituen testuen bereizgarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Landu gabeko informazioa ematen du, batzuetan proposatutako helbururako garrantzitsua ez dena. Komunikazio-egoerarako egokia ez den hizkuntza-erregistroa erabiltzen du. Testuaren xedea nekez antzematen du. Informazioa nolabaiteko ordena faltarekin aurkezten du, ulergarritasuna oztopatzen duelarik. Prentsa artikulua testu-ezaugarri nekez egokitzen zaie. Testuaren koherentzia eta kohesioan gabezia nabariak ditu. Lexiko, gramatika eta ortografia akatsak ditu. 	<p>Maila honetako ikasleak idazten dituen testuen bereizgarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Proposatutako helbururako informazio nahikoa eta garrantzitsua ematen du. Oro har komunikazio egoerarako egokia den hizkuntza-erregistroa erabiltzen du. Testuaren xedea antzematen du. Informazioa era logikoan antolatzen du ulermena errazteko. Kasurik gehienetan, prentsa artikulua testu-ezaugarri egokitzen zaie. Testua kohesionatzeko hizkuntza-baliabide batzuk erabiltzen ditu. Oro har ortografia eta gramatika arauak betetzen ditu. Lexiko egokia erabiltzen du. 	<p>Maila honetako ikasleak idazten dituen testuen bereizgarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Proposatutako helbururako informazio ugaria eta garrantzitsua ematen du. Komunikazio-egoerarako egokia den hizkuntza-erregistroa erabiltzen eta mantentzen du. Informazioa era koherentean antolatzen eta egituratzen du. Prentsa artikulua testu-ezaugarri egokitzen zaie. Testua kohesionatzeko hizkuntza-baliabide ezberdinak erabiltzen ditu. Ortografia eta gramatika arauak betetzen ditu. Lexiko zehatza erabiltzen du.


• **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoa geruzak bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruzak	K	Batezbestekoa	D.T.
A publikoa	648	214	2,09
B publikoa	822	243	1,73
D publikoa	5.482	247	0,67
Itunpeko A	1.907	256	1,15
Itunpeko B	3.593	258	0,81
Itunpeko D	3.352	251	0,84

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua (15.804) eta euskarazko kompetentziako puntuazioan sartutakoena (15.246) ez datoz bat, zenbait ikasle salbuetsita baitaude, eta, beraz, ez baitira kompetentzia honetako puntuazioan sartu.

31. grafikoa: ED09-DBH 2. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendua geruzen arabera



Ondoko taulan geruzen arteko aldeen adierazgarritasuna azaltzen da.

Emitzen adierazgarritasuna gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian. DBH 2

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
A publikoa		Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
B publikoa	Bai		Bai	Bai	Bai	Bai
D publikoa	Bai	Bai		Bai	Bai	Bai
Itunpeko A	Bai	Bai	Bai		=	Bai
Itunpeko B	Bai	Bai	Bai	=		Bai
Itunpeko D	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	


Taula ezkerretik eskuinera irakurri behar da.
 BAI: Alde adierazgarria % 95ean
 = : ez dago alde adierazgarririk % 95ean

Batezbestekoen adierazgarritasun estatistikoa aztertzean, honako hau ikusten da:

- Hezkuntza sare publikoko geruzek itunpeko sareko geruzek baino emaitza nabarmenki baxuagoak lortu dituzte kompetentzia honetan.
- Itunpeko geruzetan, A eta B ereduak antzeko emaitzak lortu dituzte, baina Itunpeko D geruzako ikasleek emaitza apalagoak lortu dituzte.
- D publiko geruzako ikasleek hezkuntza-sare publikoko beste bi geruzetakoek baino emaitza nabarmenki altuagoak lortu dituzte. Itunpeko sarean, berriz, ez da horrelakorik gertatzen.

Ondoko grafikoan geruzak bakoitzeko ikasleen ehunekoa azaltzen da kompetentziarako finkatu diren gaitasun mailetan.

32. grafikoa: ED09-DBH 2. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendua geruzen arabera.




Geruzak aztertu ondoren, zenbait alderdi azpimarratu beharko lirateke:

- A eredu publikoaren geruzako ikasleen % 40 baino gehiago dago gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hasierako mailan, eta % 10,8k bakarrik lortzen du maila aurreratura heltzea.
- EAEko DBH 2ko ikasleen % 84 erdi-mailan eta maila aurreratuan dagoela kontuan izanik, A eredu publikoaren geruzan izan ezik, gainontzeko geruzak % 81 (B publikoa) eta % 88 (itunpeko B eredu) tartean daude.

• **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen arabera eta geruzen arabera**


33. grafikoa gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan lortutako batezbesteko emaitzak adierazten dira ebaluazioan aintzat hartu diren 6 geruzetan.

33. grafikoa: ED09-DBH 2. Dimentsioetako errendimendua geruzen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Geruza bakoitzeko emaitzetan, oro har, homogeneousitasun handia dago konpetentziako dimentsio guztietan. Dimentsioak banan-banan aztertuz gero, geruza bakoitzeko emaitzak ondoko grafikoan azaltzen dira.

34. grafikoa: ED09-DBH 2. Geruzetako errendimendua dimentsioen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




Entzumenean eta Idazmenean itunpeko A eta B ereduaren geruzetako emaitzak estatistikoki berdinak dira, eta, aldi berean, Itunpeko D eredu eta hezkuntza-sare publikoko geruzetakoak baino altuagoak. Idazmenean itunpeko sareko geruzek eta D publikoaren geruzak emaitza berdinak lortu dituzte.

- Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak ikasleen sexuaren arabera**

Ondoko grafikoan ikusten den bezala, gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian neskek batez beste 253 puntu lortu dituzte eta mutilek 247. Nesken emaitzak mutilenak baino nabarmenki altuagoak dira.

35. grafikoa: ED09-DBH 2. Emaitzak gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen sexuaren arabera.




Puntuazio aldeak sexuaren arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian

Konpetentzia	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarritasuna
Gaztelaniazko hizkuntza-komunik.	253	247	6	Bai

36. grafikoak ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen du gaitasun-mailetakako bakoitzean. Erdi-mailan eta maila aurreratuan metatutako ehunekoa % 86,5 da nesken kasuan eta % 81,7 mutilen kasuan.

36. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen sexuaren arabera



- Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera**


Ondoko taulak gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ebaluatzeko kontuan izan diren DBH 2ko ikasleen lagina erakusten du etxeko hizkuntzarekin batera. Irakasmaila horretan ikasleen % 80k baino gehiagok gaztelania du etxeko hizkuntza bezala, % 15 inguruk euskara, eta % 2k beste hizkuntza bat.

	Euskara		Gaztelania		Beste hizkuntza bat	
	K	%	K	%	K	%
GUZTIRA: 15.804	2.378	15,05	12.736	80,59	318	2,01

(*) Taula honetan ez da aintzat hartu kompetentziaren ebaluazioan parte hartu duten ikasleen % 2,35, galdera-sortako galdera horretan "Ez daki/Ez du erantzun" erantzun duelako.


Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzerakoan, familia euskalduneko ikasleek gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian 246 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania dutenek 252 puntu lortu dituzte. Aldea adierazgarria da.

37. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen etxeko hizkuntza eta errendimendua gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian



Jarraian ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen da etxeko hizkuntzaren arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailetan.

38. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian etxeko hizkuntzaren arabera.



Emaitzak gaitasun-mailen arabera aztertzen baditugu, etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen % 85 inguru erdi-mailan eta maila aurreratuan dago. Familia euskalduneko ikasleen % 82 inguru dago maila horietan. Etxeko hizkuntza bezala beste hizkuntza bat duten ikasleen % 52 inguru dago erdi-mailan eta maila aurreratuan.


- **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna).**

DBHko 2. mailan adin egokiko ikasletzat 1995. urtean jaiotakoak hartzen dira. 1994an edo 1993an jaiotako ikasleak DBHko 2. mailan eskolaturik egotearen arrazoiak, oro har, aurreko irakasmilaren bat errepikatzea dela suposatzen da. Hala ere, beste arrazoi batzuk ere egon daitezke, adibidez gaixotasunak edo eskolatze berantiarrak.

	K*	Batezbestekoa	D.T.
Jaiourtea 1993	742	213	1,80
Jaiourtea 1994	2.288	217	0,99
Jaiourtea 1995	12.727	258	0,42

(*) Taulan ez dira sartu urte horiek baino lehenago eta beranduago jaiotako 45 ikasle; kopurua (K) oso txikia zenez, ez zen adierazgarria.


39. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen jaiourtea eta errendimendua gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian



Adin egokiko ikasleek (1995ean jaiotakoek) urte bateko edo biko atzerapena duten ikasleek baino emaitza nabarmenki hobekak lortu dituzte. Datu hori bat dator ISEI-IVEIk orain arte egin dituen ikerlan eta ebaluazio guztiekin.

Jarraian ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen da gaitasun mailetan jaiourtearen arabera.

40. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian jaiourtearen arabera.




Aurreko grafikoa ikus daiteke adin egokiko –1995ean jaiotako– ikasleen % 34 kompetentziako maila aurreratuan dagoela, baina irakasmaila bat edo bi erreplikatu duten ikasleen % 35 eta % 39, hurrenez hurren, kompetentziako hasierako mailan dagoela.

- **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera**

Ondoko grafikoan ISEK lau mailetako bakoitzean lortu den batezbesteko puntuazioa.


41. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailen arabera.



Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako gaitasun-mailetan dauden ikasleen ehunekoak azaltzen dira ISEK maila bakoitzaren arabera.

42. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailen arabera.




ISEK maila altuan ikasleen % 91 biltzen da kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan. ISEK maila baxuan, berriz, ikasleen % 75 bakarrik biltzen da gaitasun maila horietan.

Gaitasun-mailen ikuspuntutik, ISEK maila altuko ikasleen % 40k lortu du maila aurreratura heltzea. ISEK maila baxuko ikasleen artean horren erdia bakarrik (% 20) heltzen da kompetentziako maila aurreratura.

- **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa**

Geruza bakoitzeko ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren aldagaia kontrolatzen denean, hots, emaitza geruza guztiek ISEK balio berdina izango balute bezala kalkulatzen denean, gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hasierako eta bukaerako puntuazioen artean zenbait aldaketa gertatzen dira, ondoko grafikoan azaltzen den bezala.

43. grafikoa: ED09-DBH 2. gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batezbesteko puntuazioa eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo puntuazioa



Ikus daitekeenez, sare publikoko geruza guztiek eta itunpeko D ereduaren geruzak bukaerako puntuazio handiagoa lortzen dute ISEK indizearen aldagaia indargabetzen denean. Itunpeko A eta B ereduaren geruzek bukaerako puntuazio baxuagoa lortzen dute. A eredu publikoaren geruza da puntuazioa gehien handitzen duen geruza, 24 puntuko aldea baitu hasierako eta bukaerako puntuazioen artean. Itunpeko B ereduaren geruzak 6 puntu gutxiago lortuko luke gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, aldagai hori kontrolatu ondoren. Hasierako eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo batezbesteko puntuazioen arteko aldeak adierazgarriak dira geruza guztietan.

ISEK indizearen aldagaia kontrolatu ondoren lortuko liratekeen emaitzak berdin egiten dira geruza hauetan: itunpeko A, B eta D ereduetan eta D eredu publikoan. A eredu publikoak lortutako emaitza B eredu publikoko emaitzarekin berdintzen da. Eta B eredu publikoko emaitza, behin ISEK indizearen aldagaia indargabetzen denean, D eredu publikoko eta itunpeko B ereduko emaitzekin berdintzen da.

GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZETATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

1. Gaitasun mailak

- Ikasleen % 84 gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan dago.
- EAEko DBH 2ko ikasleen % 16k gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen ditu. DBH 2ko ikasleen % 55 konpetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 29k konpetentziako maila aurreraturako definitu diren trebezia konplexuagoak menperatzea lortu du.

2. Emaitzak gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan.

- Entzumena da emaitzarik onenak lortu dituen dimentsioa da, hasierako mailan ikasleen ehuneko baxua biltzen baitu, eta maila aurreratuan ikasleen ehunekorik handiena.
- Idazmenak, berriz, ikasleen ehunekorik handiena (% 23 inguru) hasierako mailan biltzen du eta ikasleen ehunekorik txikiena maila aurreratuan (% 12). Portaerarik txarrena duen dimentsioa da.
- Irakurmena da konpetentziako emaitza orokorretara gehien hurbiltzen den dimentsioa.

3. Analisia geruzen arabera.

Emaitza orokorrak

- Sare publikoko geruzetako emaitzak itunpeko sareko geruzetakoak baino nabarmenki apalagoak dira.
- Itunpeko sarean A eta B ereduaren geruzek emaitza berdinak lortu dituzte, eta D ereduaren geruzak aurrekoek baino emaitza apalagoak lortu ditu konpetentzia honetan.
- D eredu publikoaren geruzako ikasleek sare publikoko beste bi geruzek baino emaitza nabarmenki hobeagoak. Itunpeko sarean, berriz, ez da berdina gertatzen D ereduaren geruzarekin.

Gaitasun-mailen arabera

- A eredu publikoaren geruzako ikasleen % 40 gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hasierako mailetan dago, eta % 10,8k bakarrik lortu du maila aurreratura heltzea.
- EAEko DBH 2ko ikasleen % 84 erdi-mailan eta maila aurreratuan dagoela kontuan izanik, gainerako geruza guztiak, A eredu publikoarena izan ezik, % 81 (B publikoa) eta % 88 (B itunpekoa) artean daude.

Konpetentziako dimentsioen arabera

- Homogeneotasun handia dago geruzetako emaitzen artean dimentsio guztietan.
- Entzumenean eta Idazmenean itunpeko A eta B ereduaren geruzetako emaitzak estatistikoki berdinak dira, eta aldi berean itunpeko D ereduaren geruzakoak eta sare publikoko geruza guztietakoak baino hobeagoak.
- Idazmenean sare publikoko geruzek eta itunpeko D eredu publikoak emaitza berdinak lortu dituzte.

4. Emaitzak ikasleen sexuaren arabera.

- Nesken batezbesteko puntuazioa 253 izan da eta mutilena 247. Beraz, neskek mutilek baino emaitza nabarmenki hobeak lortu dituzte.
- Nesken kasuan erdi-mailako eta maila aurreraturako ehuneko metatua % 86,5 da; mutilen kasuan, berriz, % 81,7.

5. Emaidzak etxeko hizkuntzaren arabera.

- DBH 2ko ikasleen artean % 80k baino gehiagok gaztelania du etxeko hizkuntza bezala, % 15 inguruk euskara, eta % 2k beste hizkuntza bat.
- Familia euskalduneko ikasleek 246 lortu dituzte gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, eta familian gaztelaniaz hitz egiten dutenek 252 puntu. Aldea adierazgarria da.
- Emaidzak gaitasun-mailen arabera aztertzen baditugu, etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen % 85 inguru erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen da. Familia euskalduneko ikasleen % 82 inguru dago maila horietan. Etxeko hizkuntza bezala beste hizkuntza bat duten ikasleen % 52 inguru biltzen da erdi-mailan eta maila aurreratuan.

6. Emaidzak ikasleen jaiotztearen arabera.

- Adin egokiko ikasleek, hots, 1995ean jaiotakoek, emaitza nabarmenki altuagoak lortu dituzte irakasmila bat edo biko atzerapena dutenek baino.
- Adin egokiko ikasleen, hots, 1995ean jaiotakoen, % 34 kompetentziako maila aurreratuan dago. Irakasmila bat edo biko atzerapena dutenen artean, % 35 eta % 39 hurrenez hurren kompetentziako hasierako mailan dago.

7. Emaidzak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)).

- Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.
- ISEK maila altuko ikasleen % 91 inguru biltzen da kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan. ISEK maila baxuko ikasleen % 75 inguru dago kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan.
- Gaitasun-mailen ikuspuntutik, ISEK maila altuko ikasleen ia % 40k lortu du maila aurreratuera heltzea. ISEK maila baxuko ikasleen % 20, erdia, dago errendimendu-maila aurreratuan.

8. ISEK indizeak geruza bakoitzean duen eraginaren analisia.

- Sare publikoko geruza guztiek bukaerako puntuazio handiagoa lortzen dute ISEK indizearen aldagaia indargabetzen denean. Itunpeko sareko geruzek bukaerako puntuazio baxuagoa lortzen dute. A eredu publikoaren geruzak 24 puntuko hobekuntza du hasierako eta bukaerako puntuazioan artean, eta, beraz, puntuazioa gehien handitzen duen geruza da. Itunpeko B ereduaren geruzak 6 puntu gutxiago lortuko luke gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, aldagai hori kontrolatu ondoren. Hasierako eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo batezbesteko puntuazioen arteko alde guztiak adierazgarriak dira.
- ISEK indizearen aldagaia kontrolatu ondoren lortuko lirakeen emaitzak berdindu egiten dira geruza hauetan: itunpeko A, B eta D eruedetan eta D eredu publikoan. A eredu publikoak lortutako emaitza B eredu publikoko emaitzarekin berdintzen da. Eta B eredu publikoko emaitza, behin ISEK indizearen aldagaia indargabetzen denean, D eredu publikoko eta itunpeko B ereduko emaitzekin berdintzen da.

2.C. Matematikarako kompetentzia.

Definizioa

Matematikarako kompetentzia honi esaten zaio: zenbakiak erabiltzeko eta horiek lotzeko, oinarriko eragiketak egiteko, ikurrak eta horiek adierazteko moduak erabiltzeko eta arrazoinamendu matematikoak erabiltzeko trebetasunari, eta, hartara, hainbat informazio-mota ekoitzi eta hura interpretatu ahal izateko, errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazialek buruz gehiago ikasi ahal izateko, eta eguneroko bizitzarekin eta lan-munduarekin zerikusia duten arazoei aurre egin ahal izateko.

Matematikarako kompetentzia 4 atal edo dimentsio handitan egituratu da:

- Kopurua
- Espazioa eta forma.
- Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna.
- Problemen ebazpena.

Ebaluazio honetan Matematikarako kompetentzia orokorki neurtu da, dimentsioetako emaitzak bere baitan hartzen dituen batezbesteko emaitza orokor baten bidez⁷.

- **Matematikarako kompetentziako emaitza orokorrak**


EAEko DBH 2ko ikasleen batezbesteko emaitza Matematikarako kompetentzian 250 puntutan finkatu da. Ondoko taulan kompetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera (382 eta 91 puntu hurrenez hurren).

	K	Txikiena	handiena	Batezbestekoa	D. T.
Matematikarako kompetentzia	15.872	91	382	250	50

Ondoko grafikoan ikasleen banaketa azaltzen da ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailletako bakoitzean.

⁷ Matematikarako kompetentziako proba osatzen duten itemen kopurua ez da nahikoa dimentsioetako bakoitzean emaitza fidagarriak bermatzeko.

44. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera Matematikarako kompetentzian.



EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 15ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen ditu. Ikasleen % 60 kompetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen laurdenak (% 24,9) kompetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menperatzen ditu. Ikasleen % 85 dago Matematikarako kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailetako bakoitzean –hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua– ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Taulan oinarriturik, ikastalde bakoitza zein egoeratan dagoen ondoriozta daiteke, eta, baita ere, maila bakoitzean zer egiteko gai den.

Gaitasun mailen deskribapena Matematikarako kompetentzian.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Hasierako mailan dagoen ikasleak ohiko prozedura algoritmikoak erabiltzen ditu, eta bere irakasmailari dagozkion ariketak zailtasunekin planteatzen eta ebazten ditu.</p> <p>Oro har, egoera ezberdinetan dauden matematikari buruzko informazio sinpleak ulertzeko, interpretatzeko eta komunikatzeko gai da. Kasu gehienetan, zenbakizko kalkulu sinpleak egin ditzake, eta, horrekin batera, algebra-hizkuntza lehen mailako ekuazio oso sinpleak ebazteko erabili, formen eta erlazio geometrikoen ezagupena eguneroko egoerei irtenbidea emateko erabili, eta datuen interpretazioari eta antolamenduari lotutako problema sinpleak ebazti.</p> <p>Ausazko esperimentu sinpleetan iragarpenak egin ditzake ausazko gertakari baten probabilitatearen balioaz duen esperientzian oinarriturik. Egoera esplizituetan eta argibide zuzenak jarraituz informazioa identifikatzeko eta ohiturazko prozedurak gauzatzeko gai da.</p> <p>Normalean erreproduzio-teknikak deitutakoak erabiltzen ditu. Hala ere, kasu gehienetan, aplikatzeko arazoak eta erabiltzeko akatsak izaten ditu.</p>	<p>Erdi-mailan dagoen ikasleak matematika-hizkuntza egokia erabiltzen du. Gainera, matematika-gai ezberdinak elkarrekin erlazionatzeko gai da, eta bere irakasmailari dagozkion ariketa klasikoak segurtasunez ebazten ditu.</p> <p>Hasierako mailan deskribatutako ahalmenez gain, erdi-mailako ikasleak normalean mota ezberdinetako zenbakiak erabiltzea eskatzen duten kalkuluak segurtasunez egiteko gai da, ehunekoen kalkuluari lotutako problemak ebazteko, formatu ezberdinetan aurkeztutako funtzio-erlazio sinpleak interpretatzeko eta ausazko esperimentu sinpleetan ausazko gertakari baten probabilitatearen balioari buruzko iragarpen zentzuzkoak egiteko. Zenbakizko eta geometriazko proportzionaltasun-erlazioak identifikatu ditzake, eta eguneroko egoera ezberdinetan probabilitateri lotutako problemak ebazteko erabili ditzake. Datuen interpretazioari eta antolamenduari lotutako problemak ebazterakoan, ikaslea gai da aztertutako datuetatik eta grafikoetatik ondorio zentzuzkoak</p>	<p>Maila aurreratuan dagoen ikasleak, matematikaren arlo ezberdinak erlazionatzeaz gain, arrazoiketa landuak erabiltzen ditu, gogoetatsua da, logikaz argudiatzen du, eta problema originalak ebazteko gai da.</p> <p>Aurreko mailetan deskribatutako ahalmenez gain, maila aurreratuko ikasleak zenbakeiei, neurriei eta magnitudeei buruzko ezagupenak erabili ditzake era ezberdinetako magnitudeak erlazionatzea eskatzen duten egoerei irtenbidea emateko. Geometriako nozioak eta espazioaren adierazpen-sistemak sormenez erabiltzea eskatzen duten espazioaren pertzepzio eta diskriminazio-problemak ebaz ditzake. Ikasle horrek, oro har, estrategia heuristikoa ezberdinak ezagutzen eta erabiltzen ditu, problema ebazteari begira garrantzitsuenak zeintzuk diren badakielarik; aukera ezberdinak aztertzen eta ebaluatzen ditu, eta egokienak</p>

	<p>ateratzeko eta portaerak iragartzeko. Informazio iturri ezberdinetako adierazpenak interpretatu eta erabil ditzake eta haietatik ondorio zuzenak atera. Bere interpretazioak, emaitzak eta arrazoiketak idazki laburretan adierazteko gai da. Oro har, problemak ebazteko estrategia heuristikoko ezberdinak ezagutzen eta erabiltzen ditu, nolabaiteko konplexutasuna duten problemak ebazteko gai da, eta zereginak gauzatzeko segurtasun handi samarra du.</p> <p>Normalean lotura-teknikak deitutakoak erabiltzen ditu, hau da, nolabaiteko zailtasuna duten problemak ebazteko ditzake, baina oraindik egoera ezagun samarretan.</p>	<p>antzematen ditu; emaitza egiaztatzen du, eta jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du; emandako problemaren emaitza hobetzeko edo beste problema batzuen ebazpenerako erabilgarriak izan daitezkeen ondorioak ateratzen ditu. Gainera, bere interpretazioak eta arrazoiketak jariozuzenez eta segurtasunez adierazteko gai izaten da, matematika-hizkuntza egokia erabiltzen duelarik.</p> <p>Normalean hausnarketa-teknikak erabiltzen ditu, eta horrek emandako egoerak sakonkiago ezagutzea eskatzen du eta, baita ere, sormen handiagoa problema baten matematika-elementuak identifikatzerakoan eta elkarren arteko erlazioak finkatzerakoan.</p>
--	--	---

Ondoko taulan Matematikarako kompetentzian definitu diren hiru mailen adierazleak deskribatzen dira.

Gaitasun mailen adierazleak Matematikarako kompetentzian


Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Oro har, maila honetako ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Ingurune ezberdinetako zenbakizko mezu sinpleak ulertzen eta interpretatzen ditu. ♦ Zenbakiei buruzko ezagupenak integratzen ditu, eta problema eta ariketa sinpleak ebazteko erabiltzen ditu.. ♦ Ehunekoekin kalkulu sinpleak egiten ditu. ♦ Lehen mailako ekuazio sinpleen bidez adieraz daitezkeen egoerak algebra-hizkuntzara itzultzen ditu. ♦ Figura lauen eta espazialen zenbait ezaugarri erabiltzen ditu eguneroko egoerei irtenbidea emateko. ♦ Zentzuzko ondorioak ateratzen ditu aztertutako datuetatik eta grafikoetatik. ♦ Intuiziozko iragarpenak egiten ditu ausazko gertakari baten probabilitatearen balioari buruz ausazko esperimendu sinpleetan. 	<p>Hasierako mailan deskribatutako trebetasunez gain, oro har, maila honetako ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Estrategia mentalak erabiltzen ditu era guztietako zenbakien arteko eragiketa ezberdinak egiteko, horretarako eragiketen hierarkia egoki erabiltzen duelarik. ♦ Ehunekoak dagozkien hamarrenekoekin eta zatikiekin erlazionatzen ditu. ♦ Geometria-hiztegi egokia erabiltzen du, eta objektu ezberdinen krokisak eta planoak interpretatzen ditu. ♦ Zentzuzko ondorioak ateratzen ditu aztertutako datuetatik eta grafikoetatik, eta gai da portaerak iragartzeko. ♦ Geometria-proporzionaltasunari lotutako problemak ebazten ditu.. ♦ Zentzuzko iragarpenak egiten ditu ausazko gertakari baten probabilitatearen balioari buruz ausazko esperimendu sinpleetan. 	<p>Hasierako eta erdi-mailan deskribatutako trebetasunez gain, oro har, maila honetako ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Neurketari lotutako problemak sormenez eta originaltasunez ebazten ditu, prozedura informalak zein akademikoak erabiltzen dituelarik. ♦ Figuren kokaguneak ingurune ezberdinetan identifikatzen eta interpretatzen ditu; ezagupen horiek arrazoiketako eta orientazio espazialeko problemak ebazteko erabiltzen ditu. ♦ Problemaren enuntziatua arreta handiz irakurtzen du; daturik garrantzitsuenak identifikatzen ditu, eta horrela irakurtzeak problemaren ebazpenean duen garrantzia antzematen du. ♦ Estrategia heuristikoko ezberdinak ezagutzen eta erabiltzen ditu, problema ebazteari begira garrantzitsuenak zeintzuk diren badakielarik.

- **Matematikarako kompetentziako emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua).**

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondean geruzak bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruza	K	Batez bestekoa	D.T.
A publikoa	659	212	1,82
B publikoa	828	241	1,68
D publikoa	5.492	248	0,67
Itunpeko A	1.933	252	1,18
Itunpeko B	3.608	253	0,80
Itunpeko D	3.352	259	0,84

45. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera Matematikarako kompetentzian.



Ondoko taulan geruzen arteko aldean adierazgarritasuna azaltzen da.

Emitzen adierazgarritasuna Matematikarako kompetentzian. DBH 2

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
A publikoa		BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
B publikoa	BAI		BAI	BAI	BAI	BAI
D publikoa	BAI	BAI		BAI	BAI	BAI
Itunpeko A	BAI	BAI	BAI		EZ	BAI
Itunpeko B	BAI	BAI	BAI	EZ		BAI
Itunpeko D	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	

Taula ezkerretik eskuinera irakurri behar da.

BAI: Alde adierazgarria % 95ean

EZ: ez dago alde adierazgarririk % 95ean


Batezbestekoen adierazgarritasun estatistikoa aztertzean, honako hau ikusten da:

- Matematikarako konpetentzian A eredu publikoaren geruzan emaitzak gainerako geruzetan baino nabarmenki apalagoak dira.
- Itunpeko D ereduaren geruzan emaitzak gainerako geruzetan baino nabarmenki altuagoak dira.
- Itunpeko B eta A ereduaren geruzen artean ez dago alde adierazgarririk.
- Hezkuntza sare publikoko geruzek itunpeko sareko geruzek baino emaitza nabarmenki baxuagoak lortu dituzte.

Puntuazio horien adierazgarritasuna ISEK indize sozio-ekonomikoa eta kulturala aintzat harturik aztertu da (ikus 67-68 or.). Aldagai horren eraginez, geruza jakin batzuetako puntuazioak berdindu egiten dira.

Ondoko grafikoan Matematikarako konpetentziarako finkatu diren hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak azaltzen dira geruza bakoitzean.

46. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean Matematikarako konpetentzian geruzen arabera.




Geruzen azterketak islatzen du A eredu publikoaren geruzako ikasleen ehuneko handi batek (% 40 inguru) ez duela gainditzen Matematikarako konpetentziako hasierako maila. Ikasleen % 6,7k bakarrik lortzen du maila aurreratura heltzea. B eredu publikoaren geruzan ikasleen % 19,4 dago hasierako mailan, EAEko batezbesteko ehunekoaren gainetik (% 15).

Maila aurreratuan ikusten da itunpeko sareko hiru geruzek gainditzen dutela maila horretako ikasleen ehunekoaren batezbestekoa (% 24,9). D eredu publikoaren geruzak ikasleen % 23,5 maila aurreratuan du, eta EAEko batezbestekoan dago ia.

- **Matematikarako kompetentziako emaitzak ikasleen sexuaren arabera**

Ondoko grafikoan ikusten den bezala, neskek 249 puntu lortu dituzte, eta mutilek 251.

47. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua Matematikarako kompetentzian ikasleen sexuaren arabera.




Nesken emaitzak eta mutilenak berdintsuak dira, eta, beraz, ez dago alde adierazgarririk.

	Puntuazio aldeak ikasleen sexuaren arabera Matematikarako kompetentzian			
	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarria
Matematikarako kompetentzia	249	251	-2	EZ

Ondoko grafikoak DBH 2ko ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen du Matematikarako kompetentziako hiru mailetan. Hasierako mailan dauden nesken ehunekoa mutilena baino apur bat txikiagoa da. Era berean, maila aurreratuan nesken ehunekoa (% 23,6) apur bat txikiagoa da mutilena baino (% 26,1).

48. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Matematikarako kompetentzian ikasleen sexuaren arabera.




- **Matematikarako konpetentziako emaitzak probako hizkuntzaren arabera eta etxeko hizkuntzaren arabera**

Ikastetxeek bi aukera izan zuten ikasleek proba zein hizkuntzatan egin behar zuten erabakitzeko: euskara eta gaztelania. Konpetentzia horretan A ereduko ikastetxe gehienek gaztelania aukeratu zuten, eta D ereduko gehienek, euskara. B ereduetan, berriz, ehuneko txiki batek euskara aukeratu zuen, eta gehiengoak gaztelania aukeratu zuen, haietako hainbaten Matematikarako irakas-hizkuntza euskara zen arren. Hau da, ikasleek proba etxeko hizkuntzan egin zezaten aukeratu zuten.

Probako hizkuntzaren arabera

Proba euskaraz egin zuten ikasleek 252 puntu lortu zituzten, eta gaztelaniaz egin zutenek 247 lortu zituzten. Aldea adierazgarria da.

49. grafikoa: ED09-DBH 2. Probako hizkuntza eta errendimendua Matematikarako konpetentzian.



Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza batera aztertzen direnean alde adierazgarri hori azal daiteke.

Ondoko taulan azaltzen da geruza bakoitzean ikasleen ehuneko zenbatak egin zuten proba euskaraz, eta zenbatak gaztelaniaz.


Probako hizkuntza geruzen arabera Matematikarako konpetentzian

Geruza	Euskara		Gaztelania	
	K	%	K	%
A publikoa	-	-	659	100
B publikoa	129	15,6	699	84,4
D publikoa	5.483	99,8	9	0,2
Itunpeko A	1	0,1	1.932	99,9
Itunpeko B	348	9,6	3.260	90,4
Itunpeko D	3.313	98,8	39	1,2
GUZTIRA: 15.872	9.274		6.598	

Etxeko hizkuntzaren arabera

Ikasleen etxeko hizkuntzaren analisiak erakusten du familian euskaraz hitz egiten duten ikasleek Matematikarako kompetentzian 264 puntu lortu dituztela, eta familian gaztelaniaz hitz egiten dutenek, 249 puntu. Aldea adierazgarria da.

50. grafikoa: ED09-DBH 2. Etxeko hizkuntza eta errendimendua Matematikarako kompetentzian.



Puntuazioan sartu diren ikasleen etxeko hizkuntza geruzen arabera Matematikarako kompetentzian

Geruza	Euskara	Gaztelania	Beste hizkuntza bat
	K	K	K
A publikoa	-	516	101
B publikoa	14	777	24
D publikoa	1.204	4.103	70
Itunpeko A	4	1.834	45
Itunpeko B	156	3335	41
Itunpeko D	1.002	2239	33
GUZTIRA: 15.872	2.380	12.804	314

(*) Taula honetan ez da aintzat hartu kompetenziaren ebaluazioan parte hartu duten ikasleen % 2,35, galdera-sortako galdera horretan "Ez daki/Ez du erantzun" erantzun duelako.

Datu horien arabera, familian euskaraz hitz egiten duten ikasleak oro har D ereduetan eskolatzen dira. Familia euskalduneko oso ikasle gutxi eskolatzen da gainerako geruzetan, edo bat ere ez.

Informazio hori beste informazio interesgarri batekin lotu behar da, familian euskaraz ikasleen ehuneko zenbaterik hitz egiten duen alegia. Multzo hori Matematikarako kompetentziako probako puntuazioan aintzat hartu diren ikasleen % 30 da itunpeko D ereduan, eta % 22 D eredu publikoan.

Jarraian emaitzak proban erabilitako hizkuntzaren arabera aztertzen dira (etxeko hizkuntzarekin edo irakas-hizkuntzarekin bat ote datorren), bai B ereduan, Matematikarako irakas-hizkuntza nagusia, oro har, gaztelania baita, eta D ereduan, arlo horretarako irakas-hizkuntza nagusia euskara baita.

B EREDUA


B ereduan oro har Matematika arloa gaztelaniaz irakasten da. Hizkuntza-eredu horretan familian euskaraz egiten duten 170 ikasle daude eta Matematikarako kompetentziako puntuazioan aintzat hartu diren 5.121 ikasleen % 3,3 dira. Haien artean % 2,3k egin dute proba euskaraz.

B ereduko ikasleak				
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	K	Batezbestekoa	D.T.
Gaztelania	Gaztelania	3767	251	0,79
Euskara	Gaztelania	345	244	2,49

Gainontzeko hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. Adibidez, B ereduan familia euskalduneko 119 ikaslek bakarrik egin zuten proba euskaraz. Beraz, ondorengo analisietan talde horietako emaitzak ez dira kontutan hartu.

		Euskara	Gaztelania
Probako hizkuntza	Euskara	*	244
	Gaztelania	*	251

51.grafikoa: ED09- DBH 2. B ereduaren emaitzak probako hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren arabera Matematikarako kompetentzian



Ondoko taulak talde horietako emaitzen arteko adierazgarritasuna erakusten du.

Aldeen adierazgarritasuna Matematikarako kompetentzian.		
	Gaztelania-Gaztelania	Euskara-Gaztelania
Gaztelania-Gaztelania		BAI
Euskara-Gaztelania	BAI	

Analisi horretatik zenbait ondorio atera daitezke:


- Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza berbera denean emaitzak nabarmenki altuagoak dira hizkuntza ezberdinak direnean baino.
- B ereduaren kasuan, gaztelania-gaztelania taldeak (etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza, biak gaztelania) emaitza nabarmenki hobekak lortu ditu euskara-gaztelania taldeak baino (etxeko hizkuntza, gaztelania, baina probakoa, euskara).

D EREDUA

D ereduan Matematika euskaraz irakasten da. Hizkuntza-eredu horretako emaitzak ondoko tauletan eta grafikoetan biltzen dira.

Hizkuntza-eredu horretako ikasleen % 62 hezkuntza-sare publikokoa da, eta % 38 itunpeko sarekoa.

52. grafikoa: ED09-DBH 2. D ereduko emaitzak Matematikarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera



D ereduko ikasleak

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	K	Batez bestekoa	E.T.
Euskara	Euskara	2.206	264	1,01
Euskara	Gastelania	6.297	249	0,62

Gainontzeko hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. D ereduan, adibidez, familian gaztelaniaz hitz egiten duten 45 ikaslek bakarrik egin zuten kompetentzia honetako proba gaztelaniaz, eta familia euskalduneko ikasle batek ere ez zuen proba gaztelaniaz egin. Beraz, ondorengo analisietan talde horietako emaitzak ez dira kontutan hartu.

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	
	Euskara	Gastelania
Euskara	264	249
Gastelania	-	-

Datu horiek aztertu ondoren, ondorio hauek atera dira:

- Proba euskaraz egin duten D ereduko ikasleen artean, familian euskaraz hitz egiten dutenek familian gaztelaniaz hitz egin dutenek baino emaitza nabarmenki hobekak lortu dituzte.
- Bi talde horien arteko aldea (15 puntu) Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako berbera da, eta horrek beste ebaluazio batzuetako emaitzak baieztatzen ditu (ikus Lehen Hezkuntza 2004 ebaluazioa)⁸.

⁸ www.isei.ivei.net. Argitalpenetan: *Lehen Hezkuntzako ebaluazioa. 2004. 2006ko apirila.*

- B ereduari bi talde horien arteko aldea 30 puntukoa zen, baina D ereduari aldea erdira murriztu da. Horren arrazoiak familian gaiteliaz hitz egiten duten eta D ereduari euskaraz eskolaturik egon diren ikasleen euskarazko hizkuntza-gaitasun handiagoa izan liteke. Hala ere, arrazoi hori ez da nahikoa bi taldeen arteko aldea berdintzeko edo ezeztatzeko.


- **Matematikarako konpetentziako emaitzak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna).**

DBHko 2. mailan adin egokiko ikasletzat 1995. urtean jaiotakoak hartzen dira. 1994an jaiotako ikasleek irakasmaila bateko atzerapena dute eta 1993an jaiotakoek bi irakasmailakoa.

	K	Batezbestekoa	D.T.
Jaioturtea 1993	761	206	1,58
Jaioturtea 1994	2.293	213	0,90
Jaioturtea 1995	12.771	259	0,41

Jarraian ikasleen errendimendua jaioturtearen arabera azaltzen da, hots, adin egokiko ikasleekiko duten atzerapenaren arabera.


53. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen jaioturtea eta errendimendua Matematikarako konpetentzian.



Matematikarako konpetentziako emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira, hau da, 1994an jaiotako ikasleek (irakasmaila bateko atzerapena dutenek) adin egokiko ikasleek baino emaitza apalagoak lortu dituzte. Eta bi urte lehenago, 1993an, jaiotakoek (bi irakasmailako atzerapena dutenek) irakasmaila bateko atzerapena dutenek eta adin egokikoek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu dituzte.

Ondoko grafikoa ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen da gaitasun-mailetan jaioturtearen arabera.

54. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Matematikarako kompetentzia jaiotztearen arabera.




Begi bistakoa da hasierako mailan irakasmila bateko edo biko atzerapena duten ikasleen ehunekoa (% 36,8 eta % 42,2 hurrenez hurren) nahiko handiagoa dela adin egokiko ikasleen ehunekoa baino (% 9,5).

- **Matematikarako kompetentziako emaitzak ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera.**

Ondoko grafikoa ISEK lau mailetako bakoitzean Matematikarako kompetentzia lortu den batezbesteko puntuazioa.


55. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua Matematikarako kompetentzia eta ISEK maila.



Matematikarako kompetentzia harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian Matematikarako kompetentziako gaitasun-mailetan dauden ikasleen ehunekoak azaltzen dira ISEK maila bakoitzaren arabera.

56. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Matematikarako kompetentzia ISEK mailen arabera.




ISEK maila altuan ikasleen % 92 biltzen da kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan. ISEK maila baxuan, berriz, ikasleen % 73,1 bakarrik heltzen da erdi-mailara eta maila aurreratura. ISEK bi maila altuetan bakarrik izan dira hasierako mailako emaitzak maila horretako emaitza orokorrak baino apalagoak (% 14,8).

- **Matematikarako kompetentzia lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa**

Geruza bakoitzeko ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren aldagaia kontrolatzen denean, hots, emaitza geruza guztiek ISEK balio berdina izango balute bezala kalkulatzen denean, Matematikarako kompetentziako batezbesteko eta bukaerako puntuazioen artean zenbait aldaketa gertatzen dira, ondoko grafikoa azaltzen den bezala.

57. grafikoa: ED09-DBH 2. Emaitzak Matematikarako kompetentzia geruzen arabera ISEK aldagaia kontrolatu ondoren.




Ikus daitekeenez, geruza guztiek, itunpeko B eta D ereduaren geruzak izan ezik, bukaerako puntuazio handiagoa lortzen dute ISEK indizearen aldagaia indargabetzen denean. A eredu publikoaren geruza da puntuazioa gehien handitzen duen geruza, 25 puntuko aldea baitu hasierako eta bukaerako puntuazioen artean. Itunpeko D ereduaren geruzak 7 puntu gutxiago lortuko luke, aldagai hori kontrolatu ondoren, hau da, bere puntuazioa 7 puntuz handiagoa da ISEK indizearen eragina ezeztatuko balitz lortuko lukeena baino.

ISEK indizearen aldagaia geruzetako bakoitzean kontrolatu ondoren, Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko aldeak kasu batzuetan desagertu egiten dira, eta beste kasu batzuetan mantendu. Horrek adieraziko luke ISEK indizea ez dela geruzen arteko aldeak azal ditzakeen alderdi bakarra.

Ondoko grafikoak erakusten du ISEK aldagaia kontrolatu ondoren zein geruzak berdintzen dituzten puntuazioak eta zein geruzak mantentzen duten puntuazio alde adierazgarria. Laukizuzen gorriek alde estatistikoki adierazgarriak dituzten geruzak banatzen dituzte- Berdintasun ikurra eta geziak puntuazioa berdintzen duten geruzak markatzen dituzte.

58. grafikoak: ED09-DBH 2. Matematikarako kompetentziako batezbesteko puntuazioa eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo puntuazioa.



ISEK aldagaia kontrolatu ondoren, honako hau egiaztatzen da:

- Itunpeko sareko geruza guztietan eta D eredu publikoaren geruzan emaitza berdinak lortuko lirateke Matematikarako kompetentzietan, eta emaitza horiek A eta B eredu publikoen geruzetakoak baino nabarmenki altuagoak dira.
- B eredu publikoaren geruzako emaitzak D eredu publikoaren geruzakoekin berdintzen dira, itunpeko sareko geruzetakoak baino nabarmenki apalagoak diren arren.
- A eta B eredu publikoen geruzetako emaitzak berdindu egiten dira, hots, ez dago haien arteko alde adierazgarririk.

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZETATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

1. Gaitasun mailak

- DBH 2ko ikasleen % 15ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen ditu.
- Ikasleen % 60 konpetentziako erdi-mailan dago.
- Ikasleen ia laurdenak (% 24,9) Matematikarako konpetentziako maila aurreraturako definitu diren trebezia konplexuagoak menperatzea lortu du.

2. Analisia geruzen arabera.

Emitza orokorrak

- Matematikarako konpetentziako emaitzak geruzaka aztertzen baditugu, A eredu publikoaren geruzak gainerako geruza guztiek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu ditu.
- Itunpeko D ereduaren geruzak gainerako geruza guztiek baino emaitza nabarmenki hobetoak lortu ditu.
- Itunpeko sarean A eta B ereduaren emaitzen artean ez dago alde adierazgarririk Matematikarako konpetentzian.

Gaitasun-mailen arabera

- A eredu publikoaren geruzako ikasleen ehuneko handi batek (% 39,8) ez du gainditzen Matematikarako konpetentziako hasierako maila, eta % 6,7k bakarrik lortu du maila aurreratura heltzea.
- B eredu publikoaren geruzako ikasleen % 19,4 hasierako mailan dago. Geruza horrek eta A eredu publikoaren geruzak EAEn maila horretan dauden ikasleen batezbesteko ehunekoa (% 15) gainditu dute.
- Konpetentziako maila aurreratuan itunpeko sareko hiru geruzek maila horretan dauden ikasleen ehunekoaren batezbestekoa (% 24,9) gainditzen dute.
- Gainera, D eredu publikoaren geruza (% 23,5 maila aurreratuan) EAeko maila horretako batezbestekoaren parean dago ia.

3. Emaitzak ikasleen sexuaren arabera.

- Matematikarako konpetentzian nesken eta mutilen errendimendua berdina da. Aldeak ez dira adierazgarriak.

4. Emaitzak probako hizkuntzaren arabera eta etxeko hizkuntzaren arabera

- Etxeko hizkuntza eta probakoa bera denean, emaitzak nabarmenki altuagoak izan dira hizkuntza aldaketa egon denean baino (adib.familia euskalduneko ikasleek proba euskaraz egiten dutenean edo, alderantziz, familian gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleek proba euskaraz egiten dutenean).
- Gauza bera gertatzen da B eta D ereduaren

5. Emaitzak ikasleen jaioturrearen arabera.

- Ikasleek jaioturrearen arabera sortzen diren puntuazio-aldeak adierazgarriak dira; 1995ean jaiotako ikasleek, emaitza nabarmenki altuagoak lortu dituzte irakasmaila bat edo biko atzerapena dutenek, hots, 1994an eta 1993an jaiotakoek, baino.
- Horrekin batera, Matematikarako konpetentziako hasierako maila gainditzen ez duten ehunekorik altuena (% 42,2) 1993an jaiotakoak dira, hau da, bi irakasmailako atzerapena dutenak. Maila horretako ikasleen ehunekorik txikiena, berriz, adin egokiko ikasleena da, 1995ean jaiotakoena (% 9,5). Maila aurreraturako ikasleen ehunekorik altuena ere adin egokiko ikasleei dagokie (% 29,6).

6. Emaitzak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)).

- Matematikarako konpetentzian harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.
- ISEK maila altuko ikasleen % 92,2 biltzen da konpetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan. ISEK maila baxuko ikasleen % 73,8 dago konpetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan.

7. ISEK indizeak geruza bakoitzean duen eraginaren analisisa.

- Geruzak eta ISEK indizea batera aztertzen ditugunean, behin ISEK aldagaia indargabetzen denean, geruza guztiek, itunpeko B eta D ereduak izan ezik, bukaerako puntuazioa handitu egiten dutela baieztatzen da.
- A eredu publikoko geruza da puntuazioa gehien handitzen duena, hasierako eta bukaerako puntuazioen arteko aldea 25 puntukoa baita.
- Itunpeko D ereduaren geruzak 7 puntu gutxiago lortuko luke aldagai hori kontrolatuko balitz; hau da, bere puntuazioa 7 puntuz handiagoa da ISEK aldagaia kontrolatuko balitz lortuko lukeena baino.
- ISEK aldagaiaren eragina kontrolatzen denean, itunpeko sareko geruza guztiek eta d eredu publikoaren geruzak emaitza berdinak lortuko lituzkete Matematikarako konpetentzian. Emaitza horiek apur bat altuagoak izango liriateke A eta B eredu publikoen geruzetakoak baino. A eta B eredu publikoetako emaitzak berdindu egingo liriateke, hots, haien artean ez litzateke alde adierazgarririk egongo. B eredu publikoak emaitzak berdindu egingo lituzke D eredu publikoekin.

2.D. Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia.

Definizioa

Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia kontzeptuarekin honako hau adierazi nahi da: ezagupenak eta ikerkuntza zientifikoa erabiltzeko gaitasuna eta nahia, natura azaltzeko eta bizitza errealeko egoeretan jarduteko.

Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia lau dimentsiotan banatu da:

- Ezagutza zientifikoaren ulermena.
- Naturaren errealitatearen azalpena.
- Ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarrien azterketa.
- Ezagupen zientifikoak erabakiak hartzeko erabiltzea.

Ebaluazio honetan Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia orokorki neurtu da, dimentsioetako emaitzak bere baitan hartzen dituen betezbesteko emaitza orokor baten bidez.⁹

• Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako emaitza orokorrak.


EAEko DBH 2ko ikasleen batezbesteko emaitza Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian 250 puntutan finkatu da. Ondoko taulan kompetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko puntuazioarekin (395 puntu) eta gutxieneko puntuazioekin batera (89 puntu).

	K	Txikiena	Handiena	Batezbestekoa	Desb. Tip.
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia	15.915	89	395	250	50

59. grafikoan ikasleen banaketa azaltzen da ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailetakoko bakoitzean.

⁹ Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako proba osatzen duten itemen kopurua ez da nahikoa dimentsioetako bakoitzean emaitza fidagarriak bermatzeko.

59. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian



Ikasleen % 82 inguru dago Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan.

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 18k baino apur bat gutxiagok hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen ditu. Ikasleen % 57 kompetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 24,9k kompetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menperatzen ditu.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren hiru gaitasun mailetako bakoitzean –hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua– ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Taulan oinarriturik, ikastalde bakoitza zein egoeratan dagoen ondoriozta daiteke, eta, baita ere, maila bakoitzean zer egiteko gai den.

Gaitasun mailen deskribapena Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Maila honetan dagoen ikasleak zientzia-ezagupen sinpleak (izenak, gertaerak, terminologia, arau sinpleak eta abar) antzematen ditu, eta ondorio sinpleak ateratzeko edo ebaluatzeko erabiltzen ditu. Zientzia-fenomenoak erlazioak edo kategoriak deskribatuz azaltzen ditu; kausa edo ondorioren bat aurki dezake, baina ez da heltzen erlazioaren eredu formala garatzera. Grafiko sinpleak interpretatzen ditu. Saillapena pertzepzio-tresna bezala erabiltzen du zer gertatzen den aurkitzeko, baina emaitza esperimentalak egituratzeko eredu jakin bat eman behar zaio. Zailtasunak ditu esperimendu batean aldagaiak identifikatzeko eta haien eragina ulertzeko (adibidez, eraginik ez duten aldagaiak, bigarren mailako eragina edo emaitza baten kontrako eraginak).	Maila honetan dagoen ikasleak, hasierako mailan deskribatutako trebetasunaz gain, zientzia-kontzeptuak erabiltzen ditu iragarpenak egiteko edo azalpenak emateko. Ikerketa zientifikoaren bidez erantzun daitezkeen galderak antzematen ditu, eta ikerketa zientifiko batean gertatzen denari buruzko xehetasunak identifikatzen ditu. Ondorioak ateratzerakoan edo ebaluatzerakoan informazio garrantzitsua hautatzen du elkarren kontrako datuei edo arrazoiketa-kateei buruz. Zientzia-fenomeno bat azaltzeko eredu formal sinpleak erabiltzen ditu, baita beharrezko kausaren bat sartzen du ere. Kausa anitzak ondorio bakar baterako izatea edo kausa batek bakarrik ekarritako ondorio anitzak izatea uler dezake. Gauzen zergatia asmatzen saiatzen da eta aurretiaz emandako eredu formal batean oinarriturik ondorioak ateratzen. Hipotesi sinpleak formula ditzake eta esperimendu sinpleak planifikatu, baina	Maila honetan dagoen ikasleak, hasierako eta erdi-mailan deskribatutako trebetasunaz gain, zientzia-kontzeptuak eta eredu sinpleak erabiltzen ditu iragarpenak egiteko edo errealitateari buruzko azalpenak emateko. Eredu baten propietateetatik ondorioak ateratzeko gai da eta, baita ere, eredutik ondorio kuantitatiboak formulatzeko eta aldagaien arteko erlazioei buruz hausnartzeko. Kausen azalpen posibleak sortzen eta egiaztatzen ditu. Adibidez, diseinu esperimentalari lotutako ikerketa zientifikoak aztertzen ditu, edo probatzen ari den ideia baten identifikazioa aztertzen du. Datuetan oinarritzen da aukerako ikuspuntuak edo ikuspegi ezberdinak ebaluatzeko froga bezala. Goi mailako grafikoak eta erlazioak interpretatzen ditu. Zientzia-argudioak eta zientzia-deskribapenak xehetasunaz eta zehaztasunaz adierazten ditu. Aldagai ezberdinen arteko erlazioez hausnartzen du.

	laguntza behar du emaitzen arteko erlazioak ondorioztatzeko. Aldagaiak kontrola ditzake, aldi bakoitzean faktore bakar bat aldatuz, baina sarritan ez da gai izaten beste faktore batzuen eragina kanpoan uzteko.	Problemak aldagai ezberdinekin ebazteko estrategiak erabiltzen ditu.
--	---	--

Ondoko taulan Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian definitu diren hiru mailen adierazleak deskribatzen dira.

Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako mailen adierazleak.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetako ikaslea, oro har, honako hau egiteko gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Zientzia-esperimentu batean prozedura bat erabiltzearen arrazoa ondorioztatu. ♦ Ingurumen-arazo bat konpontzeko modua identifikatu, eta modu hori arazoaren iturriekin lotu. ♦ Gizakien garapen fisikoari eta intelektuari eragiten dieten faktoreei buruzko ondorioak atera. ♦ Produktu edo material birziklatuak erabiltzearen abantailak ondorioztatu. ♦ Eguneroko produktuen kontsumoan zientziaren, teknologiaren eta osasunaren arteko harremanak finkatu. ♦ Teknologia-arazo bati buruzko informazio ezberdinak baloratu, eta erabaki egokia hartu. ♦ Dieta orekatua zertan den azaldu. ♦ Giza gorputzaren funtzionamenduari dagozkion azalpen zientifikoak zientzia-oinarririk gabe hedatutako sinismen sinpleetatik bereizi. ♦ Ingurumen-arazo orokor batzuk beren zergatiekin eta ondorioekin erlazionatu. ♦ Eguzki-energia erabiltzearen abantailak eta oztopoak ondorioztatu. 	<p>Maila honetako ikaslea, hasierako mailan deskribatutako trebetasunez gain, oro har honako hau egiteko gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Esperientzia pertsonaleko gertakariak fisikaren eta kimikaren arloko oinarriko kontzeptuekin erlazionatu. ♦ Informazio grafiko konplexuan oinarriturik, kutsadura sortzen duten jarduerak identifikatu. ♦ Esperimentu batean materialen eta diseinuaren funtzioa identifikatu. ♦ Ingurumen-arazo bati buruzko informazioa aztertzean, zergatiak eta ondorioak identifikatu eta bereizi. ♦ Materiaren eraldatze-prozesu fisikoak bereizi. ♦ Giza jarduerak ekosistema baten elementuetan dakartzan ondorioak azaldu. ♦ Diagrama baten azterketan oinarriturik, ingurumen-arazo baten zergatietatik ondorioak atera. ♦ Mineralak eta beren ezaugarriak erlazionatu. ♦ Etxean izaten diren produktu kimikoek erabilera desegokiak giza osasunean egin ditzakeen kalteak deskribatu. ♦ Fisika-legeen ezagutza esperientzia zuzeneko fenomeno naturalak azaltzeko erabili. ♦ Zenbait animalien ezaugarri fisiologikoak eta ingurunera moldaera erlazionatu. ♦ Problema bat ebazteko soluzio egokia irizpide zientifikoaren arabera aukeratu. ♦ Kutsadura akustikoari buruzko informazioa problema bat ebazteko erabili. ♦ Korrante elektriko baten elementuak eta objektuak bere ezaugarriekin erlazionatu. ♦ Zenbait mineralek eguneroko bizitzan eta giza jardueretan dituzten aplikazio praktikoak identifikatu. ♦ Ohiko produktu batzuen kontsumoa energia iriotearekin erlazionatu. 	<p>Maila honetako ikaslea, hasierako mailan eta erdi-mailan deskribatutako trebetasunez gain, oro har honako hau egiteko gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Arrazoibide zientifiko ordenatu baten urratsetan oinarriturik, ondorio bat bere zergatiekin erlazionatu. ♦ Giza osasunari eragin diezaioketen zenbait faktore eta agente natural identifikatu. ♦ Eguneroko bizitzako tresnak erabiltzean gertatzen diren energia-erlazioak erlazionatu.


- Produktu birziklatuen kontsumoa horrek dakartzan abantailekin lotu.
- Norberarentzat adin eta egoera pertsonal bakoitzean egokiak diren elikatze-ohiturak bereizi.
- Naturako prozesu fisiko eta kimiko jakin batzuen funtzionamendua ulertu.
- Grafikoki adierazitako informazio-iturri batzuetan oinarriturik, prozesu zientifiko bati buruzko ondorioak atera.
- Zenbait prozesu naturalen zergatia ondorioztatu.

- **Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziako emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoa geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruzak	K	Batezbestekoa	D.T.
A publikoa	670	229	2,03
B publikoa	838	232	1,74
D publikoa	5.504	247	0,66
Itunpeko A	1.945	265	1,13
Itunpeko B	3.621	248	0,85
Itunpeko D	3.337	257	0,81

60. grafikoa: ED09-DBH 2. Emaitzak Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzian geruzen arabera.



Ondoko taulan geruzen arteko aldean adierazgarritasuna azaltzen da.

Emaitzen adierazgarritasuna Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian. DBH 2

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
A publikoa		=	Bai	Bai	Bai	Bai
B publikoa	=		Bai	Bai	Bai	Bai
D publikoa	Bai	Bai		Bai	=	Bai
Itunpeko A	Bai	Bai	Bai		Bai	Bai
Itunpeko B	Bai	Bai	=	Bai		Bai
Itunpeko D	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	

Taula ezkerretik eskuinera irakurri behar da.

BAI: Alde adierazgarria % 95ean


= : ez dago alde adierazgarririk % 95ean

Batezbestekoen adierazgarritasun estatistikoa aztertzean, honako hau ikusten da:

- Hizkuntza-eredu bakoitzean, hezkuntza-sare publikoko geruzak itunpeko sareko geruzak baino emaitza nabarmenki baxuagoak lortu ditu.
- Itunpeko A ereduaren geruzan emaitzak gainerako geruzetan baino nabarmenki altuagoak dira.
- A eta B eredu publikoen geruzetako emaitzak berdinak dira, baina gainontzeko geruzetakoak baino nabarmenki baxuagoak.
- D eredu publikoaren eta itunpeko B ereduaren geruzetako emaitzen artean ere ez dago alde adierazgarririk.

Ondoko grafikoan Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziarako finkatu diren hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak azaltzen dira geruzak bakoitzean.

61. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoak errendimendu-maila bakoitzean Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian geruzen arabera.




Geruzak gaitasun-mailen arabera aztertuz gero, zenbait ondorio atera daitezke:

- Hasierako mailan bi geruzak bakarrik lortu dituzte EAEko ikasleen batezbesteko ehunekoa (% 17,8) baino ikasleen ehuneko baxuagoa: itunpeko A ereduak (% 11,2) eta itunpeko D ereduak (% 12,9).
- A eta B eredu publikoen geruzetan, berriz, ikasleen ehuneneko handia dago hasierako mailan. D eredu publikoaren geruza (% 18,9) EAEko batezbestekoan dago ia.
- Maila aurreratuan ikusten da itunpeko D eta A ereduen geruzek gainditzen dutela maila horretako EAEko ikasleen ehunekoaren batezbestekoa (% 25,2): % 27,9 itunpeko D ereduan eta % 35,8 itunpeko A ereduan. EAEko batezbestekora gehien hurbiltzen den geruza itunpeko B eredu da (% 24,9).

- **Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako emaitzak ikasleen sexuaren arabera.**

Ondoko grafikoan ikusten den bezala, neskek kompetentzia honetan batez beste 252 puntu lortu dituzte eta mutilek 248. Nesken emaitzak mutilenak baino nabarmenki altuagoak dira.

62. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian ikasleen sexuaren arabera.




Puntuazio aldeak sexuaren arabera Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian

Kompetentzia	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarritasuna
Zientzia, teknologia eta osasun-kultura	252	248	4	Bai

Ondoko grafikoan DBH 2ko ikasleen ehunekoen banaketa azaltzen da gaitasun maila bakoitzean. Erdi-mailako eta maila aurreratuko nesken ehuneko metatua % 84,5 da, eta mutilena, berriz, % 80.

63. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian sexuaren arabera.



- **Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera**


Ikastetxeek bi aukera izan zuten ikasleek proba zein hizkuntzatan egin behar zuten erabakitzeko: euskara eta gaztelania. Kompetentzia honetan A ereduko ikastetxe gehienek gaztelania aukeratu zuten, eta D ereduko gehienek, euskara. B ereduan ikasleen bi herenek baino gehiagok euskara aukeratu zuten.

Probako hizkuntzaren arabera

Proba euskaraz egin zuten ikasleek 248 puntu lortu zituzten, eta gaztelaniaz egin zutenek 256 lortu zituzten. Aldea adierazgarria da.

Probako hizkuntza	K	Batezbestekoa	D.T.
Euskara	11.670	248	0,46
Gaztelania	4.245	256	0,79

64. grafikoa: ED09-DBH 2. Probako hizkuntza eta errendimendua Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian



Ondoko taulan azaltzen da geruza bakoitzean ikasleen ehuneko zenbatak egin zuen proba euskaraz, eta zenbatak gaztelaniaz.


Probako hizkuntza geruzen arabera Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian

Geruza	Euskara		Gaztelania	
	K	%	K	%
A publikoa	-	-	670	100
B publikoa	604	72,1	234	27,9
D publikoa	5.498	99,9	6	0,1
Itunpeko A	-	-	1.945	100
Itunpeko B	2.271	62,7	1.350	37,3
Itunpeko D	3.297	98,8	40	1,2
GUZTIRA: 15.915	11.670 (% 73,33)		4.245 (% 26,67)	

Etxeko hizkuntzaren arabera

Ikasleen etxeko hizkuntzaren analisiak erakusten du familian euskaraz hitz egiten duten ikasleek Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian 262 puntu lortu dituztela, eta familian gaztelaniaz hitz egiten dutenek, 249 puntu. Aldea adierazgarria da.

65. grafikoa: ED09-DBH 2. Etxeko hizkuntza eta errendimendua Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian



Puntuazioan sartu diren ikasleen etxeko hizkuntza geruzen arabera Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian

Geruza	Euskara	Gaztelania	Beste hizkuntza bat
	K	K	K
A publikoa	-	545	114
B publikoa	15	792	27
D publikoa	1.223	4.175	77
Itunpeko A	4	1.882	45
Itunpeko B	157	3.406	43
Itunpeko D	1.010	2.266	35
GUZTIRA: 15.915	2.409	13.066	341

(*) Taula honetan ez da aintzat hartu kompetentziaren ebaluazioan parte hartu duten ikasleen % 0,62, galdera-sortako galdera horretan "Ez daki/Ez du erantzun" erantzun duelako.

Datu horien arabera, familian euskaraz hitz egiten duten ikasleak oro har D ereduetan eskolatzen dira (2.409 ikasleen % 42 itunpeko D ereduan dago, eta % 50 D eredu publikoan). Familia euskalduneko oso ikasle gutxi eskolatzen da gainerako geruzetan, edo bat ere ez.

Geruzen analisisian gehiago sakontzeko, aurreko taulako datuak beste informazio interesgarri batekin lotu behar dira, ikasleen etxeko hizkuntza alegia. Itunpeko D ereduko 3.337 ikasleen % 30 eta D eredu publiko 5.504 ikasleen % 22 familia euskaldunekoak dira.

Jarraian B ereduko emaitzak proban erabilitako hizkuntzaren arabera aztertzen dira eta etxeko hizkuntzarekin bat ote datorren kontuan izanik.

B EREDUA


B ereduan, bai sare publikoan baita itunpekoan ere, oso eskaintza zabala dago arlo ezberdinak euskaraz eta gaztelaniaz ikasteko. DBHko 2. mailan B ereduan matrikulatutako 4.459 ikasleen artean 172 (% 4) familia euskaldunekoak dira eta 4.198k (% 94) familian gaztelaniaz hitz egiten dute.

B ereduko ikasleak				
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Ikasle kopurua	Batezbestekoa	D.T.
Gaztelania/	Gaztelania	1.532	258	1,23
Euskara/	Gaztelania	2.666	238	0,98

Gainontzeko hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. Adibidez, B ereduan familia euskalduneko 172 ikasleetatik 165ek bakarrik egin zuten proba euskaraz eta 7k gaztelaniaz. Beraz, ondorengo analisisietan talde horietako emaitzak ez dira kontutan hartu.

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	
	Gaztelania	
	Euskara	238
Gaztelania	258	

66. grafikoa: ED09-DBH 2. B ereduko emaitzak Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera



Ondoko taulak talde horietako emaitzen arteko adierazgarritasuna erakusten du.

	Gaztelania-Gaztelania	Euskara-Gaztelania
Gaztelania-Gaztelania		Bai
Euskara-Gaztelania	Bai	

Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziako emaitzei dagokienez, etxeko hizkuntza eta probakoa bat datozenean emaitzak ez dira aldatzen eta aldeak ez dira adierazgarriak, ISEI-IVEIk orain arte egindako beste ebaluazio eta ikerlan batzuetan gertatu den bezala. Hala ere, familian gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleek proba euskaraz egiten dutenean, aldeak adierazgarriak izaten dira.

Emaitza horietatik zenbait ondorio atera daitezke:

- Ikasleek proba egiteko erabiltzen duten hizkuntzak emaitzetan eragin nabaria du probako hizkuntza etxeko hizkuntza ez denean, etxeko hizkuntzan hizkuntza-gaitasun handiagoa baitute.
- Proba etxeko hizkuntzan egin ahal dutenean, ikasleek gaitasun maila berdintsua erakusten dute. Hala ere, baieztapen hori taldeko ikasleen kopurua kontuan izanik egin behar da. Familia euskalduneko ikasleen kasuan, proba euskaraz egin duten ikasleen kopurua oso txikia da, eta, beraz, aurreko baieztapena zehaztu egin beharko litzateke kopurua handiagoa balitz.

D EREDUA

D ereduko 8.841 ikasleen % 38 inguru itunpeko sarekoa da % 62 hezkuntza-sare publikokoa.

D ereduan probako hizkuntza eta etxekoa (euskara) bat datozenean, emaitzak nabarmenki altuagoak dira.


D ereduko ikasleak

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Ikasle kopurua	Batezbestekoa	D.T.
Euskara	Euskara	2.233	262	0,96
Euskara	Gaztelania	6.397	248	0,60

Gainontzeko hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. D ereduan, adibidez, familian gaztelaniaz hitz egiten duten 44 ikaslek bakarrik egin zuten konpetentzia honetako proba gaztelaniaz. Beraz, ondorengo analisietan talde horietako emaitzak ez dira kontutan hartu

		Etxeko hizkuntza	
		Euskara	Gaztelania
Probako hizkuntza	Euskara	262	248
	Gaztelania	-	-

67. grafikoa: ED09-DBH 2. D ereduko emaitzak Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.



Aldeen adierazgarritasuna Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian

	Euskara-Euskara	Euskara-Gaztelania
Euskara-Euskara		Bai
Euskara-Gaztelania	Bai	

Aurreko datuetatik ondorio hauek atera daitezke:


- Alde adierazgarria baieztatzen da proba etxeko hizkuntzan egiten dutenen eta egiten ez dutenen emaitzen artean.
- Bi emaitza horien arteko aldea murriztu egiten da B ereduarekin konparaturik. Arrazoia, agian, familian gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleek, murgiltze-eredu batean eskolaturik, euskarazko hizkuntza-kompetentzia handiagoa izatea litzateke. Baina arrazoi hori ez da nahikoa bi hizkuntza-talde horien arteko aldea berdintzeko.

- **Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako emaitzak ikasleen adinaren arabera (egokitasuna).**

Adin egokiko ikasletzat 1995. urtean jaiotakoak hartzen dira. DBH 2n eskolatutako eta 1994an edo 1993an jaiotako ikasleak, oro har, irakasmila bat edo bi errepikatu dituela suposatzen da. Hala ere, atzerapenaren arrazoiak beste batzuk izan daitezke, adib. gaixotasunak edo eskolatze berantiarrak.

	K	Batezbestekoa	D.T.
Jaioturtea 1995	12.773	259	0,41
Jaioturtea 1994	2.327	215	0,96
Jaioturtea 1993	767	210	1,71


68. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen jaioturtea eta errendimendua Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian.



Adin egokiko ikasleek (1995ean jaiotakoek) irakasmila bateko edo biko atzerapena dutenek baino emaitza nabarmenki hobetoak lortu dituzte.

Jarraian ikasleen banaketa azaltzen da gaitasun-mailetan eta jaioturtearen arabera.

69. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian jaioturtearen arabera




Adin egokiko ikasleen % 12 biltzen dira hasierako mailan, EAEko batezbestekoa (% 17,8) baino gutxiago. Irakasmaila bateko atzerapena duten ikasleen % 41 biltzen da maila horretan, eta irakasmaila biko atzerapena dutenen % 45,5. Datu horrek ISEI-IVEIk orain arte egindako ikerlan eta ebaluazio guztiak baieztatzen ditu.

- **Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako emaitzak ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera**

Ondoko grafikoa ISEK lau mailetako bakoitzean Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian lortu den batezbesteko puntuazioa.


70. grafikoa: ED09-DBH 2. Errendimendua Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian eta ISEK maila.



Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako gaitasun-mailetan dauden ikasleen ehunekoak azaltzen dira ISEK tarte bakoitzaren arabera

71. grafikoa: ED09-DBH 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian ISEK mailen arabera.




ISEK maila altuan ikasleen % 89,6 biltzen da kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan. ISEK maila baxuan, berriz, ikasleen % 73,6 heltzen da erdi-mailara eta maila aurreratura. Gaitasun-mailei begira, ISEK maila altuko ikasleen % 35ek lortu du maila aurreratuan egotea, eta ISEK maila baxuko ikasleen artean % 15,7k lortu du maila horretan egotea.

- **Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa**

Geruza bakoitzeko ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren aldagaia kontrolatzen denean, hots, emaitza geruza guztiek ISEK balio berdina izango balute bezala kalkulatzen denean, Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako hasierako eta bukaerako puntuazioen artean zenbait aldaketa gertatzen dira, ondoko grafikoa azaltzen den bezala.

72. grafikoa: ED09-DBH 2. Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako batezbesteko puntuazioa eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo puntuazioa.



Ikus daitekeenez, geruza guztiek, itunpeko A eta D ereduaren geruzak izan ezik, bukaerako puntuazio handiagoa lortzen dute ISEK indizearen aldagaia indargabetzen denean. B eredu publikoaren geruza da puntuazioa gehien handitzen duena, 13 puntuko aldea baitu hasierako eta bukaerako puntuazioen artean. Itunpeko A ereduaren geruzak 12 puntu gutxiago lortuko luke Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian, aldagai hori kontrolatu ondoren. Hasierako batezbestekoaren eta ISEK aldagaia kontrolatu ondorengo batezbestekoaren arteko aldeak adierazgarriak dira geruza guztietan.

ISEK indizea kontrolatu ondoren lortuko liratekeen emaitzak berdindu egiten dira hurrengo geruza hauetan: itunpeko A, B eta D ereduetan eta D eredu publikoan. A eredu publikoan lortutako emaitza B eredu publikoarekin berdintzen da. Eta B eredu publikoko emaitza, ISEK aldagaia kontrolatu ondoren, D eredu publikoko eta itunpeko B ereduko emaitzekin berdintzen da.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN-KULTURARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZETATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

1. Gaitasun mailak

- Ikasleen % 82 inguru dago Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan.
- EAEko DBH 2ko ikasleen % 18k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menperatzen ditu.
- Ikasleen % 57 inguru konpetentziako erdi-mailan dago eta % 25ek maila aurreraturako definitu diren trebezia konplexuagoak menperatzea lortu du.

2. Analisia geruzen arabera.

Emitza orokorrak

- Geruza publikoak itunpekoak baino emitza nabarmenki baxuagoak lortu ditu hizkuntza-eredu guztietan.
- Itunpeko A ereduaren geruzak gainerako geruza guztiek baino emitza nabarmenki hobeagoak lortu ditu.
- A eta B eredu publikoetako emaitzak berdinak dira, eta gainerako geruzetakoak baino nabarmenki apalagoak.
- D eredu publikoaren eta itunpeko B ereduaren artean ez dago alde adierazgarririk.

Gaitasun-mailen arabera

- Hasierako mailan bi geruzak bakarrik dute EAEko batezbestekoa baino ikasleen ehuneko txikiagoa: itunpeko A (% 11,2) eta itunpeko D (% 12,9).
- A eta B eredu publikoen geruzetako ikasleen ehunekoak, berriz, altuak dira hasierako mailan. D eredu publikoaren geruza (% 18,9) EAEko batezbestekoa dago ia.
- Maila aurreratuan itunpeko D eta A ereduaren geruzek EAEko batezbestekoa (% 25,2) baino ehuneko handiagoa dutela ikusten da: % 27,9 itunpeko D ereduak eta % 35,8 itunpeko A ereduak. Maila aurreratuan EAEko batezbestekora gehien hurbiltzen den geruza itunpeko B ereduarena da (% 24,9).

3. Emaitzak ikasleen sexuaren arabera.

- Neskek batez beste 252 puntu lortu dituzte konpetentzia honetan, eta mutilek 248 puntu. Nesken emaitzak mutilenak baino nabarmenki altuagoak dira.
- Erdi-mailako eta maila aurreratuko nesken ehuneko metatua % 84,5 da, eta mutilena, berriz, % 80.

4. Emaitzak probako hizkuntzaren arabera eta etxeko hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntzaren arabera

- Proba euskaraz egin zuten ikasleek 248 puntu lortu dituzte, eta gaztelaniaz egin zutenek, 256 puntu. Aldea adierazgarria da.

Etxeko hizkuntzaren arabera

- Familian euskaraz hitz egiten duten ikasleek 262 puntu lortu dituzte, eta gaztelaniaz hitz egiten dutenek, 249 puntu. Aldea adierazgarria da.
- Familian euskaraz hitz egiten duten ikasleak oro har D ereduaren eskolatzen dira (2.409 ikasleen % 42 inguru itunpeko D ereduaren dago, eta % 50 D eredu publikoan). Familian euskaraz hitz egiten duten ikasleen kopurua oso txikia da edo ez dago ia ikaslerik (% 6,5 itunpeko B ereduaren eta % 0,6 B eredu publikoan).
- Familian euskaraz hitz egiten duten ikasleak % 30 dira itunpeko D ereduaren (3.337) eta % 22 B eredu publikoan (5.504).

B ereduko emaitzak

- Ikasleek proba egiteko erabiltzen duten hizkuntzak eragin nabaria du emaitzetan probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza ezberdinak direnean, etxekoan hizkuntza-gaitasun handiagoa baitute.
- Proba etxeko hizkuntzan egin ahal dutenean, ikasleek gaitasun maila berdintsua erakusten dute. Hala ere, baieztapen hori taldeko ikasleen kopurua kontuan izanik egin behar da. Familia euskalduneko ikasleen kasuan, proba euskaraz egin duten ikasleen kopurua oso txikia da, eta, beraz, aurreko baieztapena zehaztu egin beharko litzateke kopurua handiagoa balitz.
- Bigarren hizkuntzan ikasten duten eta proba etxeko hizkuntzan egin duten ikasleak ez dira kaltetuak izan, beren errendimendua beste hizkuntzaren jaiotzeko hitzunen errendimenduaren antzerakoa izan baita.

D ereduko emaitzak

- Alde adierazgarria baieztatzen da proba etxeko hizkuntzan egiten dutenen eta egiten ez dutenen emaitzen artean.
- Bi emaitza horien arteko aldea murriztu egiten da B ereduarekin konparaturik. Arrazoiak, agian, familian gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleek, murgiltze-eredu batean eskolaturik, euskarazko hizkuntza-kompetentzia handiagoa izatea litzateke. Baina arrazoi hori ez da nahikoa bi hizkuntza-talde horietako emaitzak berdintzeko edo gehiago hurbiltzeko.

5. Emaitzak ikasleen jaioturearen arabera.

- Adin egokiko ikasleek (1995ean jaiotakoek) irakasmila bateko edo biko atzerapena dutenek baino emaitza nabarmenki hobetoak lortu dituzte.
- Adin egokiko ikasleen % 12 biltzen dira hasierako mailan, EAEko batezbestekoa (% 17,8) baino gutxiago. Irakasmila bateko atzerapena duten ikasleen % 41 biltzen da maila horretan, eta irakasmila biko atzerapena dutenen % 45,5. Datu horrek ISEI-IVEIk orain arte egindako ikerlan eta ebaluazio guztiak baieztatzen ditu.

6. Emaitzak indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).

- Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.
- ISEK maila altuan ikasleen % 89,6 biltzen da kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan. ISEK maila baxuan, berriz, ikasleen % 73,6 heltzen da maila horietara.

7. ISEK indizeak geruza bakoitzean duen eraginaren analisia.


- Behin ISEK aldagaia indargabetzen denean, geruza guztiek, itunpeko A eta D ereduak izan ezik, bukaerako puntuazioa handitu egiten dute. B eredu publikoko geruza da puntuazioa gehien handitzen duena, hasierako eta bukaerako puntuazioen arteko aldea 13 puntukoa baita. Itunpeko A ereduaren geruzak 12 puntu gutxiago lortuko luke Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako gaitasunean aldagai hori kontrolatuko balitz. Hasierako batezbestekoaren eta ISEK aldagaia kontrolatu ondorengo batezbestekoaren arteko aldeak adierazgarriak dira geruza guztietan.
- ISEK indizea kontrolatu ondoren lortuko liratekeen emaitzak berdindu egiten dira hurrengo geruza hauetan: itunpeko A, B eta D ereduaren eta D eredu publikoan. A eredu publikoan lortutako emaitza B eredu publikoarekin berdintzen da. Eta B eredu publikoko emaitza, ISEK aldagaia kontrolatu ondoren, D eredu publikoko eta itunpeko B ereduko emaitzekin berdintzen da.

3. GERUZEN EZAUGARRIEN ETA DBH 2KO EMAITZEN DESKRIBAPENA ISEK INDIZE SOZIO-EKONOMIKO ETA KULTURALAREN ARABERA.

Ondoren ebaluazioan kontuan izan diren sei geruzetako (hezkontza-sarearen eta hizkuntza-ereduaren gurutzatzea) bakoitzaren ezaugarrien eta emaitzen deskribapena eskaintzen da bi ataletan:

- a) **Geruza bakoitzaren ezaugarriak**, aldagai eta faktore ezberdinetan oinarritutako analisien ondorioak kontuan izanik.

Geruza bakoitzerako ondokoaren antzeko barreiadura-grafiko bat aurkezten da. Grafikoak, alde batetik, ikastetxeetako maila sozio-ekonomikoa eta kultura, ardatz horizontalean adierazirik, eta bestetik *Matematikarako konpetentziako* puntuazioa¹⁰, ardatz bertikalean adierazirik, erlazionatzen ditu. Ondorengo grafikoan bi aldagai horien gurutzatzea erakusten da, bi lerro etenekin batera: batak *Matematikarako konpetentziako* batezbesteko puntuazioa adierazten du, eta besteak etapa horretan ebaluatutako populazio osoaren batezbesteko indize sozio-ekonomikoa eta kulturala adierazten du. Lerro diagonal bat ere ageri da grafiko guztietan: lagin osoari dagokio eta bi aldagaien arteko erlazioa adierazten du. Ikastetxe edo ikastalde bat bere ezaugarri sozio-ekonomikoa eta kulturalaren arabera dagokion puntuaren gainetik edo azpitik dagoen adieraziko luke.



¹⁰ *Matematikarako konpetentzia* erabiltzen da, konpetentzia horretako emaitzek, egindako analisien arabera, korrelazio mailarik altuena erakusten dutelako gainerako konpetentziako emaitzekiko. Gainera, hizkuntza-konpetentzia ez denez, hizkuntza-eredua, etxeko hizkuntza edo antzeko alderdiek hein txikiagoan eragiten diote. Gogoratu behar da, baita ere, ikastetxeiko indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eta emaitzen arteko harreman zuzena dagoela, lehen aipatu den bezala

Aurreko grafikoan 2009ko proban parte hartu duten DBH 2ko 335 ikastetxeak erakusten dira, baina oso garrantzitsua da hurrengo hau kontuan izatea: ikastetxe batek geruza bat baino gehiago duenean –hots, ikastetxean hizkuntza-eredu bat baino gehiago dagoenean–, ikastetxeko geruza horietako bakoitza ere puntu batez adierazi da. Ikastetxe eta ikastalde bakoitza dagokion ISEK mailaren koloreaz markaturik dago. Hori dela eta, aurreko grafikoan eta ondoren aurkezten diren geruza bakoitzeko grafikoetan puntu kopurua geruzako ikastetxeen kopurua baino handiagoa da.


- b) **Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean:** deskribapenaren bigarren atalean geruza bakoitzari dagokion grafikoa azaltzen da. Bertan ikasleen ehunekoa adierazten da konpetentzia ezberdinetako errendimendu maila bakoitzerako.

1. A EREDU PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten A eredu publikoko ikastetxeak ebaluatutako populazioaren % 4,3 dira eta ikastetxe publikoen % 9,8. Sexuari dagokionez, % 48,2 neskak ziren eta % 51,8 mutilak; ikasle gehienek (% 81,3) gaztelaniaz hitz egiten dute etxean, familia euskalduneko ikasle bat ere ez dagoelarik; gainera, ikasleen % 17ren etxeko hizkuntza ez da euskara edo gaztelania. Adin egokia ez duten ikasleen ehunekorik handiena (% 55) geruza honetan biltzen da, arrazoia berandu eskolatzea edo irakasmilaren bat errepikatzea delarik. Azkenik, ikasleen % 65 indize sozio-ekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator; ISEK maila altuko ikasle bat ere ez duen geruza bakarra da.


Grafikoan ikus daitekeenez, geruzako ikastetxe edo ikastalde gehienak ISEK maila baxuan daude, eta *Matematikarako* kompetentziako puntuazioak, oro har, apalak dira. Ikastetxe do ikastaldeetako asko ebaluazio osoko emaitzarik apalenak lortu dituztenen artean daude.



Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.

Ikasleen ehunekoa ebaluatutako oinarriko konpetentzietako gaitasun maila bakoitzean ondoko grafikoan azaltzen da.


75. grafikoa. ED09.2 DBH. A publikoa.
Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera.



2. B EREDU PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten B eredu publikoko ikastetxeak ebaluatutako populazioaren % 5,2 dira eta ikastetxe publikoen % 11,9. Sexuaren aldetiko banaketa nahiko orekatua da: % 49,5 neskak ziren eta % 50,5 mutilak; ikasle gehienek (% 94,5) gaztelaniaz hitz egiten dute etxean, etxeko hizkuntza euskara dutenak % 1,8 eta beste hizkuntza bat dutenak % 3,2 delarik. Adin egokia ez duten ikasleen ehunekoa (% 32,3) 2009ko ebaluazioko ikastetxeetako batezbestekoa (% 21) baino handiagoa da. Indize sozio-ekonomiko eta kultural nagusia (% 43,5) baxua da, eta, gainera, maila sozio-ekonomikoa eta kulturala gora joan ahala, ikasleen ehunekoa murriztu egiten da, maila altuan ikasleen % 13,2 bakarrik dagoelarik.




Ikastetxeko maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina handia da. A eredu publikoaren kasuan bezala, barreiadura handia da, 76. grafikoa ikus daitekeenez. Ikastetxe batzuek puntuazio altuak lortu dituzte eta beste batzuek oso apalak.

Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.

Ikasleen ehunekoa ebaluatutako oinarriko konpetentzietako gaitasun maila bakoitzean ondoko grafikoan azaltzen da.

77. grafikoa. ED09.2 DBH. B publikoa.
Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera




3. D EREDU PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten D eredu publikoko ikastetxeak ebaluatutako populazioaren % 34,5 dira eta ikastetxe publikoen % 78,3. Sexuaren aldetiko banaketa nahiko orekatua da: % 47,6 neskak ziren eta mutilak apur bat gehiago % 52,4. Etxeko hizkuntza nagusia gaztelania da (% 76); % 22,2ren etxeko hizkuntza euskara da, eta etxeko hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenak % 1,4 dira.

Adin egokia duten ikasleen ehunekoa (% 80,6) oso handia da. Azkenik, geruza honetako ikasle gehienak maila sozio-ekonomiko eta kultural ertain baxuan (% 38,8) eta ertain altuan (% 39,1) biltzen dira, maila baxuan (% 14,4) eta maila altuan (% 13,7) ehunekoak oso antzekoak direlarik.




Geruza publikoen artean ikastetxe gehien duena da, eta barreiadura-grafikoan ikus daitekeenez, zenbait ikastetxek lortu dute espero baino puntuazioa handiagoa *Matematikarako kompetentzian*.

Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.

Ikasleen ehunekoa ebaluatutako oinarritzko konpetentzietako gaitasun maila bakoitzean ondoko grafikoan azaltzen da. Gogoratu behar da probako hizkuntzak eragin adierazgarria duela geruza honetan, hainbat ikasleren kasuetan probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza ezberdinak baitziren. Ikus daitekeenez, oreka handia dago konpetentzietako bakoitzeko ehunekoen artean.

**79. grafikoa. ED09.2 DBH. D publikoa.
Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera**




4. ITUNPEKO A EREDUA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten itunpeko A ereduiko ikastetxeak ebaluatutako populazioaren % 12,2 dira eta itunpeko ikastetxeen % 21,9. Sexuaren aldetiko banaketa gainerako geruzetakoaren antzekoa da: % 48,6 neskak ziren eta mutilak % 51,4. Ikasle ia guztien etxeko hizkuntza gaztelania da (% 96,8). 4 ikaslek bakarrik (% 0,2) dute euskara etxeko hizkuntza bezala eta % 2,3k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat. Adin egokia duten ikasleen ehunekoa (% 75,7) oso handia da, hiru laurden baino apur bat gehiago.

Azkenik, geruza honetako ikasleek oso banaketa desorekatua dute lau maila sozio-ekonomiko eta kulturalen artean: maila altuan % 56,2 dago, maila baxuan % 24,4, maila ertain baxuan bakarrik % 8,8, eta ertain altuan % 10,6.




Sare publikoko D ereduan gertatzen den bezala, ikastetxeko indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina handia da, grafikoan ikus daitekeenez. Emaitzen barriadurarik handiena geruza honetan gertatzen da: ISEK indize altuko ikastetxe batzuek emaitza bikainak, espero baino hobeak zenbait kasutan, lortu dituzte, emaitza apalak lortu dituzten ISEK indize baxuko ikastetxeak ere egon arren.

Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.

Ikasleen ehunekoa ebaluatutako oinarrizko konpetentzietako gaitasun maila bakoitzean ondoko grafikoan azaltzen da.

81. grafikoa. ED09.2 DBH. A itunpekoa.
Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera




5. ITUNPEKO B EREDUA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten itunpeko B ereduiko ikastetxeak ebaluatutako populazioaren % 22,7 dira eta itunpeko ikastetxeen % 40,6. Sexuaren aldetiko banaketa desorekatuagoa da gainontzeko geruzetan baino mutilen alde (% 53). Ikasle gehienek (% 94,1) gaztelaniaz hitz egiten dute familiarekin, % 4,3k euskaraz eta % 1,2k beste hizkuntza batean. Adin egokia duten ikasleen ehunekoari dagokionez, % 82,5 adinaren arabera dagokion ikasmilan dago.

Azkenik, geruza honetako ikasleak maila sozio-ekonomiko eta kultural altuenetan biltzen dira: % 41,5 maila altuan eta % 24,7 maila ertain altuan, beheragoko bi mailetakoko bakoitzean % 17 inguru biltzen direlarik.




Itunpeko A ereduaren kasuan bezala, emaitzen barriadura oso handia da: ikastetxe edo ikastalde batzuek emaitza apalak lortu dituzte, eta ISEK indize altuko beste batzuek, berriz, emaitza onak, 82. grafikoa ikus daitekeenez.

Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.

Ikasleen ehunekoa ebaluatutako oinarritzko konpetentzietako gaitasun maila bakoitzean ondoko grafikoan azaltzen da.

**83. grafikoa. ED09.2 DBH. B itunpekoa.
Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera**




6. ITUNPEKO D EREDUA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten itunpeko D ereduiko ikastetxeak ebaluatutako populazioaren % 20,9 dira eta ikastetxe publikoen % 37,5. Sexuaren aldetiko banaketa ebaluatutako populazio osoarena bezalakoa da: % 48 neskak ziren eta % 52 mutilak. Ikasleen % 30,3k euskaraz hitz egiten du familiarekin, eta % 67,9k gaztelaniaz. Geruza honetan gertatzen da familiarekin beste hizkuntza bat erabiltzen duten ikasleen ehunekorik txikiena (% 1). Adin egokia duten ikasleen ehunekorik altuena geruza honetan gertatzen da (% 88,3).

Azkenik, ikasleen % 74,3 ISEK maila altuetan dago. ISEK maila altuan ikasleen ehunekorik handiena (% 47,5) duen bigarren geruza da, itunpeko A ereduaren atzetik, eta indizearen maila baxuan ikasleen ehunekorik txikiena duena (% 6,5).



Diagonalarekiko ikastetxeen barreiadurarik txikiena duten geruzetako da: ikastetxe asko diagonalaren gainetik daude, hau da, espero zitezkeenak baino emaitza hobekak lortu dituzte.

Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.

Ikasleen ehunekoa ebaluatutako oinarritzko konpetentzietako gaitasun maila bakoitzean ondoko grafikoan azaltzen da.

**85. grafikoa. ED09.2 DBH. D itunpekoa.
Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera**

